



ARGIA



MAIRIE

ECOLE

Baimenari itxaron gabe, euskaraz hasi dute ikasturtea

ORTZAIZE-ARROSA,

IDAUZE-MENDI,

AIHERRA,

LARRAINE

22-27. orriak

**"Ura eta
minerala gara"**

12 | JOSEBA LEKUONA

**Mugak Zabalduz
karabana: migrazio
politika arrazistak agerian**

28 | GIZARTEA

**Unai Parot, espetxe
mendekuaren
paradigma**

36 | POLITIKA

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 18 | MIKEL ZURBANO
- 19 | KATIXA
- DOLHARE-ZALDUNBIDE
- 20 | LAURA PENAGOS
- 20 | LEIRE NARBAIZA
- ARIZMENDI
- 21 | MAIALEN ARTEAGA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
MADDALEN ARISTEGI
- 54 | BERANDUEGI



DABID EKINKLIK

28 | KANARIAK KARTZELA ETA HILOBI

Kanarietara egin du bidea aurtan Mugak Zabalduz Karabanak, Europaren migrazio eta muga politikak salatzen. Euskal Herriko ehun lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Itziar Bardaji Goikoetxeak erreportajea osatu du bidaiaren kronika eta uharteetako egoera kontatuz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

2021eko udako uholdeak ezin ulertu klimaren aldaketa salatu eta hormigoia ahaztuz

Pello Zubiria Kamino

12 | PERTSONAIA | JOSEBA LEKUONA

“Hemen artisauei prezioa jaisteko eskatzeko ohitura dugu, baina ez Iberdrolari”

Reyes Ilintxeta

22 | GIZARTEA | SARTZEA IPAR EUSKAL HERRIAN

Murgiltze eredu abiatur dute, baimen ofizialik gabe

Jenofa Berhokoirigoin

32 | HEZKUNTZA

Eskolako liburutegia ere ez dago eredu sexistetatik salbu

Mikel Garcia Idiakez

36 | POLITIKA | UNAI PAROT

Zigorra zigorraren gainean

Xabier Letona

44 | KULTURA | DONOSTIA ZINEMALDIA

Salaketak, dikotomia apurtzeko saiakerak eta film gomendioak

Ainhoa Gutierrez del Pozo

46 | KULTURA

Etengabe mugimenduan dagoen identitatea

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olsolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gasteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gurasoen munduan

Gazteek gazteentzat sortutako lekuetan gazteak elkartzea ez. Hobe kalean, Hazparden edo Iruñean kasu. Eta horretan tematuz gero, botere helduaren "besarkada" jasoko duzu kanporatzeko. Eta behin kalean, helduek alde bakartasunez ezarritako arauak hautsiz gero —Donostian, Elorrian, Plentzian edo munduaren beste hamaika tokitan— borrak, foam, ziega eta isunak. Ezkerrak "Ertzaintzari astebururo laguntza" eskatzen dio, astebururo gazteak jipoitzea eskuinak errazago agindu diezaion Poliziari. Krisian da bizimodu kapitalista, baina muinari heldu beharrean, sintomak nahiago ditugu haizatu, eta pagaburu berriak sortu. Helduek etsai abstraktu komuna edukitzeak beti gozagarriago bilakatzen baitu gurasoen mundu aldrebes hau. Irudian, Arrotxapeako Gaztetxearen desalojoa.

 UNAI BEROIZ  AXIER LOPEZ



MOTZEAN

86 migratzaile zeramatzan eta Kanarietara zioan ontzi bat hondoratu da Marokoko uretan, joan den astean. 2021ean 2.000 pertsona hil edo desagertu dira Kanarietara bidean.

Espainiako Gobernutik heltzen diren erreformak "prekarietatea legeztatzeko" bidea direla iritzita, LAB sindikatuak greba orokorra beharrezko ikusten du Euskal Herriko "esparru sozioekonomiko propioa" aldarrikatzeko.

Abuztu bukaeran, Frantziako Estatuko eta beraz Ipar Euskal Herriko ostatu eta kultur arloko langile guztiei osasun ziurtagiria edukitzea behartu zaie. Ziburuko Boga jatetxeak zerbitzua eten eta etxera eramateko zerbitzuarekin hastea erabaki du, neurriekiko desadostasuna erakustearren.

Abuztuaren 31tik, telebista eta irratiek soilik 01:00ak eta 05:00ak bitartean emititu dezakete jokoaren sektoreko enpresen publizitatea Espainiako Estatuan. Zuzeneko kirol emanaldietan, hortaz, ez da apustu-etxeen iragarkirik emitituko, eta kirolariek ez dute haien izenik eramango kamisetan.



DANI BLANCO

Sei hilabeteko kartzela zigorra adostu dute Verter Recyclinglek eta fiskaltzak

 XABIER LETONA BITERI

Zuhurtziagabekeriakzko hilketagatik eta langileen segurtasunaren aurkako delituagatik auzipetuko dituzte zabortegia kudeatzen zuen enpresako hiru ardura-dun, horrela espetxea saihestuz.

Akordioa uztailan lortu zuten enpresak, fiskaltzak eta Alberto Sololuze eta Joaquín Beltranen familiak, eta Durangoko I. Instrukzio Epaitegiaren esku dago harrez geroztik. Familiei eman beharreko kalte ordaina ere adostu dute. EITBk jakinarazi duenez, "akordioan frogatutzat ematen da zabortegiko arduradunek bazutela hondakindegian zeuden arrisku larrien berri. Izan ere, luizia izan baino bi egun lehenago zabortegian zeuden pitzaduren berri eman zieten enpresaburuei, azterketa topografiko bat egin ostean. Arazoaz ohartarazteaz gain, azterketa egin zuten profesionalek lan-jarduna berehala eteteko gomendioa egin zieten enpresako arduradunei".

Akordioaren testuan aipatzen denez, Jose Ignacio Barinaga enpresako nagusiak, Arrate Bilbao kudeatzaileak eta Juan Etxeberria zabortegiko segurtasunaren arduradunak onartu dute bazekitela hondakindegia arriskuan zegoela eta hala ere "ez zutela ezer egin gertatutakoa saihesteko; ez zitutela langileak ohartarazi, ez zutela aparteko segurtasun neurririk hartu, ezta jarduna eten ere".

ZALDIBAR ARGITUK IKERTZEN JARRAITUKO DU

Akordioaren berri jakin bezain laster, Zaldibar Argitu plataformak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak jakinarazi dute adostasuna lortzeko familien erabakia guztiz errespetatzen dutela: "Urte eta erdi oso gogorak izan dira haientzat eta oraindik ere sufritzen jarraitzen dute".

Aldi berean, bi elkarteak salatu dute uztailan herri akusazio gisa auzitik kanpora utzi zitutela: "Susmagarria da guztiz herri akusazio gisa kasutik kanpo utzi eta fiskaltzarekin adostasuna lortzea batera gertatu izana. Herri akusazio gisa onartuak izan bagina, ez dakigu zer gertatuko litzatekeen, baina adostasuna lortzeko akusazio guztiekin hitz egin behar da eta gu herri akusazio izanik gurekin ere adostu beharko zuket. Hasieratik hori saihestu nahi izan dutela dirudi".

Zaldibarren gertatutakoa argitu eta erantzukizun guztiak azaleratzeko konpromisoa hartu zutela diote, eta horretan jarraituko dutela, "benetan justizia egin dadin".

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Zenbat argi



ARITZ GALARRAGA

Egingo ez nituen bidaia aipatuz joan nintzen zutabe haue-tatik oporretara. Baina uste baino gehiago bidaia gara-azkenean, uste gabeko lekuetara: hipermerkatu, merkata-ritza-gune, saltoki handi deitu horietara; auskalo seme-alabak jada koskortu xamar daudelako, adoleszentzia esaten diogun garai horren hasieran –eguraldiak ere lagunduko zuen, noski-. Eta, haurrekin egiten diren gauza ia guztiak bezala, nostalgia ariketa bat izan da bidaia horietako bakoitza. Izan ere, adin batetik beherakoentzat, jar dezagun 40 urte, hor egon dira beti hipermerkatuak. Lehen haurtzarotik. Gure kasuan, Oiartzungo Pryca. Zenbat gauza ezagutuko, zenbat gauza biziko genituen bertan, zenbat bonba abisu, adibidez. Annie Ernauxek aipatzen du eskualdeko beste merkataritza-gune mitikoa, Mamut, *Begira zenbat argi, maitea* izeneko liburuan: bi urteko tartean saltoki handietara egindako bisitak jasotzen ditu orriotan.

Liburu bitxia, aski arraroa baita hipermerkatuak agertzea literaturan –Ernauxen galdera: zenbat denbora behar du erre-alitate batek duintasun literarioa lor dezan?-. Egia esan, ez da-kit zergatik –tira, ez da intuitzen zaila–: giza kondizioaz hitz egiteko paisaia ezin hobea iruditzen zaizkit-eta, zoriontasuna gauzak erostearekin lotzen den mundu honetan, amets, desio, gehiegikeriaz beteak, festa bat. Egia da gero kontsumitzailearen erosotasuna, otzantasuna, etsipen soziala bultzatzen dutela, ka-pitalismo neoliberal azukrezatuaren haragiztatzea direla. Baina egia da, halaber, urteak pasa, beste kontsumo ohitura batzuk finkatu, eta niri ere ez zaidala gutxitu leku hauen, eta bertan gauzatzen den bizitza kolektibo, sotil, bereziarekiko erakarga-rritasuna. Esango nuke gainera hipermerkatuei bizkar emanez nekez ezagutuko dugula gaur egungo errealtate soziala. Etxetik egindako erosketek desagerrarazi baino lehen, beraz, giza-ku-txazainen urritzea horren adibide, jarrai dezagun disfrutatzen hipermerkatuez. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“METROA ALFERRIKAKO OBRA DA”

XABIER ALBISTUR, DONOSTIAKO ALKATE-OHIA

“Donostiako metroa alferrikako obra bat da. Beste modu batean konpondu zitekeen, batez ere egiten duen ibilbideagatik. Iruditzen zait proiektua ez dela nahiko anbiziotsua, suposatzen duen inbertsiorako eta egin behar den obrarako. Erabakiak hartu dira eta orain bakoitzak berea eman beharko du. Baina iruditzen zait zerbaitek huts egin duela proiektuarekin, ez dakit ondo ote zegoen neurtua, aztertua eta sakondua, non sartu behar ziren. Halako atzerapenak ez zaizkio batere komeni hiriari”. **DIARIO VASCO (2021/09/02)**



ANALISIA



Lehortek eta hilotzak

URKO APAOLAZA AVILA

Izan dugun uda idorra ari da nabaritzen jadanik hainbat txokotan. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE) jasotako datuen arabera, Nafarroan biltegiratutako ura azken hamarkadako batez bestekoaren oso azpitik dago, eta Esako urtegiaren kasuan gehienezko mailaren %29an dago. Azken ekaitzak gorabehera, irudi harrigarriak ari gara ikusten, adierazten dutenak klima larrialdia ez dela poloetako edo tropikoetako kontu bat, etxean bertan sumatuko dugula gero eta gehiago, orain lehortek, orain uholde.

Zenbaitek esango du horregatik dela beharrezkoa Esaren handitzea, ur gehiago pilatu ahal izateko. Baina erakutsita dago sistema kontzentrazionarioak lurraren higadura handitu eta idortek larriagotu baino ez dituela egiten. Indian, adibidez, aspaldi ari dira gertuko urak biltzeko ur putzu txiki autogestionatuak bultzatzen, ibaiak berpizteko tresna gisa.

Edonola ere, badirudi CHErentzat edozein aitzakia dela ona Esaren handitzea justifikatzeko. Aragoiko Artiedan, proiektuaren kontrako ikur bilakatu den herrian, erromatar garaiko mosaiko eder baten aurkikuntza izan da azkenekoa: urtegiko obrei eta "lehengoratzeko planei" lotuta aurkeztu dute altxor arkeologikoa agintariak. Río Aragon plataformak salatu du aurkezpen horri eman nahi izan zaion izaera propagandistikoa, indusketak Artiedako udalak eta herritarrek bultzatu dituzten arren. Eta gogorarazi du Esaren eraikuntzak beste hamaika ondare suntsitu duela urte guztietan, tartean oraingo lehortearen ondorioz denon bistan geratu den Tiermaseko bainuetxea (goiko argazkian).

Hortik ez oso urrun Zigoze dago, ofizialki Aragoi dena, baina historikoki Erronkari-barreko beste herri bat izan dena -XIX. mendera arte euskaraz egiten zen-. Esaren gibelalde horretan ari dira egiten urtegiaren isatseko presa, eta herria murrutik inguratu dute badaezpada. Azpiegitura horrekin sarraila jarriko diote Belagutik datorren Ezka ibaiaren emariari -Esaren ur egarria erregulatzeko edo- eta ikusteko dago horrek nola eragingo dion natur ondare baliotsua gordetzen duen ibarrari. Baina hemen ere propaganda nagusi: aisiarako ur geruza etengabe batek eta ontziraleku batek erakarriko omen du turismoa eta dirua. Halako promesa antzuak ondo ezagutzen dituzte beste zenbait tokitan, galdetu Nagoren bestela: hondartzatxo bat egingo omen dute Itoitzek irentsita herriko lur eta basoen ertzean.

Karamelu gozoak dira despopulaturiko parajeentzako, baina pozoin dutakoak. Herri ondarea eta natura zegoen tokian, lehortek hilotzak itzuliko dizkielako. ●

Zaharrak berri eskolan

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Gelako ikasle kopurua txikitzeaz, espazio berriak lortu eta egokitzeez, ikastetxeetan arreta psikologikoa indartzeaz, hezitzaile gehiago kontratatzeaz... ez dute ezer esan gure agintariak. Berriz ere musukoa, distantzia eta gel hidroalkoholikoa dira nagusi Euskal Herriko protokoloetan, berriz ere ikasturte neketsua eta gogorra irudikatu dezakegu.

Aurreko ikasturteak utzi zuen ondorioz: ikasle ugariak sufritutako hutsune akademikoa eta animikoa nabarmendu zuen hezkuntza komunitateak, baita haur eta gazteen arteko harremanetan pandemiak izandako eragin bortitza ere, zer esanik ez nerabeen artean. Baliabide falta sumatu zuten ikastetxe askotan, baliabide pertsonalak batetik, behar pedagogiko, emozional eta psikologikoei erantzuteko, ikasleak kanpoko espazioetara gehiago atera ahal izateko, errefortzu akademikoetan laguntzeko; eta baliabide materialak bestetik, ongi aireztatutako espazio zabal egokituak lortzeko, besteak beste.

Pedagogikoki gogorak diren arauak goxatzeko bestelako neurriak ez da bultzatu

Aurreko ikasturteko lezioa, ordea, ez dute ikasi agintariak: musukoa, distantziak eta gela formula magikoari heldu diote berriz ere, pedagogikoki gogorak diren arau horiek goxatzeko, apaltzeko eta konpentsatzeko bestelako neurriak bultzatu gabe. Eta neurri gehigarriak gabe, haur eta gazteen hutsune pedagogiko, emozional, fisiko eta sozialak metatzen baldin badaoz, ondorio kezkarriagoak aterako ditugu ikasturte bukaeran. ●

Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen sexualitateari buruzko gida atera dute

 AIMAR GUTIERREZ / AIARALDEA

Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen sexualitatea lantzeko profesionalentzako gida aitzindaria argitaratu du ASASAM elakrteak. Izan ere, "gaixotasun mentalaren diagnostikoa izateak ez du esan nahi sexualitateaz gozatu ezin denik".

ARRETA HOBETZEKO

Pertsona hauek sexualitateari lotuta jasotzen duten arreta hobetzea da helburua. Bost urte daramatza elakrteak gaia lantzen buru-gaixotasuna duten pertsonekin eta beraien familiarekin. Modu integralean landu izan dute gaia eta pilatutako esperientzia da gidaren oinarria.

AURREIRITZI UGARI

Tabua ez denean, gaiari lotutako aurreiritzien zerrenda luzea da. Hala nola, pertsona hauek ez direla subjektu erotikoki desiragarriak; ezin dituztela bikote-harremanak izan; ez dutela sexu-hezkuntzarik behar, ezta beren sexualitatea artatzea edo lantzea ere... Horiek guztiak gainditzeko modua ere bada gida hau.



ANIMALIEN ASKAPEN FRONTEA


EHIZA DORREAK BOTA DITUZTE

EUSKAL HERRIA. Ehizarako hamabost dorre eta zazpi posturi eraso egin diete Jaizkibel, Jarindo, Kastañarri, Gorbeia, Arrikurutz eta Kintoa mendietan. Euskal Herriko Animalien Askapen Fronteak hartu ditu bere gain animalien "egoera tamalgarria" eta "ehiztarien sarraskiak" salatzeke. 2018an ere hainbat ehiza postu kaltetu zuten eta Iruñeko entzierroko ibilbidean porlana bota zuten hesiak jaritzeko zuloetan eta Gaseko ukuiluan sutea piztu zuten, zezenketen aurka egiteko.

ARGINDARRA

1.400 milioi

euro baino gehiago itzuli beharko dizkie elektrizitatearen multinazionaleri Espainiako Estatuak, batez ere Iberdrolari, 2015ean PPren gobernuak onartutako dekretu bat epaitegiek indargabetu ostean. Bien bitartean, argindarraren prezioa marka guztiak hausten ari da egunetik egunera.



KORSIKA. Korsika Askatzeko Nazio Fronteak (FLNC) armak berriz hartzeko prest dagoela esan dio Frantziako Gobernuari. 2021ean abertzaleek gehiengo lortu zuten Korsikan, baina FLNCk salatu du agintean dauden indarrek borroka independentista alde batera utzi dutela.



PRESOAK. Josu Urrutikoetxea absolbitu du Parisko Zigor Auzitegiak. 2011-2013 artean ETAko kide izatea egotzita bost urteko kartzela zigorra eskatzen zuen fiskaltzak. Parisko Zigor Auzitegiko epaileek, ordea, erruduntzat jotzeko froga nahikorik ez dagoela ondorioztatu dute.



ENPLEGUA. 'Kelly'-ek garbitzaileen lan-eskubideak betetzen dituzten Kataluniako hotelentzako erreserba zentroa abiatuko dute. Webgunea 2022tik aurrera jarriko dute martxan, eta garbitzaileen lan-baldintzak betetzen dituzten hotelak zeintzuk diren jakiteko balioko du.

2021EKO UDAKO UHOLDEAK

EZIN ULERTU KLIMAREN

ALDAKETA SALATU ETA

HORMIGOIA AHAZTUZ

Ekainaren erdialdean hasita, ezohiko uholdeek txikizio galantak eragin dituzte Europako hainbat eskualdetan. Udan barrena eurite eta uholde izugarriak errepikatu dira munduko lau muturretan, Txinan bezala Afrikako Sahelen, Pakistanen edo Amerikako Estatu Batuetan, beroketa globalak eragindako klimaren aldaketa jada gertatzen hasia dela erakutsiz. Badatoz euri jasa izugarriak... ura xurgatzeko gaitasuna galdu duten lurzoruen gainera.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Abuztuaren 31n titulu hau zekarren *El Pais* egunkari madrildarrak: “Euri handiek Sahel ito dute. Klimaren aldaketak ekaitz bortitzak hirukoiztea eragin du Sahararen hegoaldean”. Dakar hiriburu-ko auzoak urak erabat harrapatuta omen zeuden, Senegalen, Nigerren ehundaka jende itoak eta eraikin asko hondoa jota, Sudanen 6.000 etxe suntsituak eta Nilo bideratu behar zuten ezpondak lehertuta. Adituek diotenez, Sahelen betidanik udako hiru hilabetetan barreiatu izan diren euriak orain eraso bakanago eta bortitzagoetan biltzen dira han-hemenka gogor kolpatuz: 1950ko eta 1960ko hamarkadetan baino euri gutxiago egiten du, baina kontzentratuago.

2021eko uda osoan heldu dira eurite bortitzen albisteak mundu osotik. Europako uholdeak uztailearen 12an Ingalaterran hasita ondoko egunetan kontinentean barneratu ziren Herbehereak, Belgika, Luxenburgo, Alemania, Austria, Italia, Eslovenia eta Errumaniaraino, gutxienez 230 heriotza eraginez, gehienak Alemanian eta Belgikan.

Hildako jendeez gain, kalte ekonomiko itzelak utzi ditu urak eskualdean, handienak Alemania eta Belgikan: etxebizitza, industria, komertzio, klase gutti-tietako azpiegitura eta nekazaritzan 2.550 milioi eurotan kalkulatu dituz-

te kalteak, soilik aseguruak babestuta zeudenak zenbatuz. Nori egotzi behar ote zaizkio kalteok?

Hasteko, aurreikuspen, prestaketa eta ordenaren eredugarria den Alemanian agintarien fundamentua jarri dute auzitan, hauteskunde erabakigarrien atarian daudenean: nola ez du hobeto funtzionatu alerta sistemak?

Europako Uholdeen Zaintza Sistemaren aholkulari den Hannah Clokek garbi utzi du erakundeak garaiz ohartarazi zituela Europako gobernu guztiak, 2002ko uholdeen ostean garatutako protokoloekin: “Alertak jakinarazi ziren, euri eta uholde gogorak zetoze, kontuz ibiltzeko. Baina estatuetak aginteei dagokie informazio hori kudeatzea”.

Alemanian hartu beharreko neurriak erabakitzea eskualde autonomo bakoitzari dagokionez, erabakien katean hausturak gertatu omen ziren: herri batean agintariak jendeak garaiz ebakuatu ez, beste batean ebakuazioa aginduta ere herritar batzuk etxean geratu... Dena dela, alerta sistemarik eraginkorrenak ere ezingo zuen eragotzi zerutik halako zaparradak errukigabe lurreratzea.

“Atmosferaren goiko aldean tenperatura hotzek blokeatuta eduki dituzte urez zamatutako aire masa handiak eta gero urok lau egunetan zehar isuri dira eskualdearen gainean”, horrela laburbildu zion AFP agentziari uztaileko dilubioa Jean Jouzel klimatologoak, IPCC

Klimaren Aldaketarako Gobernu arteko Paneleko lehendakariorde izanak.

Adituek aipatu dute beste fenomeno osagarri bat: *Jet Stream* haize korrontearen geldotzea. Zarrastada korrontea –euskarazko Wikipediak azaltzen duenez– haize indartsua da, egitura tubularra duena eta ipar poloaren inguruan mendealde-ekialde norabidean mugitzen da 9-11 kilometro arteko altueran. Guri dagokigunez, Artikoko izotzak urtzearen poderioz *Jet Stream* ahuldu da eta honek ere larriagotuko ditu muturreko klima istripuak.

ERAIKUNTZARI MORATORIA

Europak aldika nozitu izan ditu uholde handiak, baina aurtengoa berezia izan da, bai eroritako euri kopuruagatik eta bai zaparraden bortitzagatik. Klimaren aldaketak ekarriko dizkion ondorioetako bat ezagutu du, horrela, Europak. Lehorteekin, suteekin edo itsas mailaren igoerarekin batera, muturreko eurite eta uholdeak gero eta ugariagoak izanen dira, adituek oroitarazi eta herritarrok pixkanaka onartzen hasi garenez.

Fenomenoaren mekanika *The Lancet* zientzia aldizkariak laburbildu du udan plazaratu duen editorialean: “Tenperatura berotzen den gradu bakoitzeko airea irits daiteke %7 hezetasun gehiago metatu eta hori denbora luzeagoz atxikitzen, eraginez batetik lehorte handiagoak eta ondoren –hezetasuna aska-



ERFTSTADT-BLESSEM

herria, Alemanian uztailako uholdeek gogorren zigortutakoetako bat. Eskuineko ertzean ageri da A-1 autopista. Argazkia: Christoph Reichwein.

tzean- eurite bortitzagoak; muturreko eguraldi eredu hau beroketa handitzea- rekin okerragotuko dela uste da”.

The Lancet-en editorialak, ordea, hau ere badio segidan: “Klimaren aldaketaz gain, badira uholdeei laguntzen dieten paisaia faktoreak, tartean lurzorua- ren ura xurgatzeko ahalmena, topografia eta hiritartzea, uraren isurketa abiadura [runoff] handitzen dutenak”. Horra hiri ordenamendu oker baten arriskuak, Europan jada populazio handia daukan eskualde batean are hormigoi gehiago erabiltzearenak: gero eta euri kolpe bortitzagoak, gero eta ur gutxiago xurgatzeko gai diren lurzoruetan.

Adibide argigarria eskaini du hedabide guztietan ikusi dugun Erftstadt herriak, erreken indarrak eta lubizi

erraldoiek suntsitu dutenak. Irudiak ikusita, ezin da ulertu nolaz sortu ahal izan ziren lubiziok paraje hain leunean. Errekak gainez egiteaz gain, herri ondolik pasatzen den autopista ere ito zuen urak -bertan harrapatuz dozenaka auto eta kamioi, ondoko egunetan militarrek erreskatatu behar izan zituztenak- betoizko oztopo eta hesietan harrapatutako urak azkenean ubide berriak sortuz lehertu ziren.

Uztailan arazo larrienak jazo dira, ez ibai handietan, baizik horietara doazen erreka txikiagoen inguruetan. Erftstadt- en ikusi den moduan, Europako herrietan errekek ubide artifizioal bihurtuta daude, hormigoiari esker lurzoruek ura xurgatzeko ahalmena galdu dute eta landa eremu osoan etxe, industria, trenbi-

de, autopista eta beste eraikinez butxatu zaizkio urari euri jasa berezietan behar dituen zabaldi eta pasabideak.

Uztailaren amaieran Hans Ibelings arkitekto herbeheretarrak Bartzelonako *La Vanguardia* egunkaritik eskatu zuen eraikuntzari moratoria ezartzea Europar Batasunean, dagoeneko behar baino gehiago eraiki dugulako, eta lur berririk artifizializatu gabe ere industriak aski lan izango duelako hutsik eta zaharturik direnak berritzen. Hona funtsezko datua: “Eraikuntza da beroketa globalaren %40aren errudun”. Euri bortitzen erruduna bera da lurrari euriak xurgatzeko eragozten diona.

Baina ixo, 1983ko dilubioa aspaldi ahaztu zuen Euskal Herrian ez aipatu eraikuntzarentzako moratoriarik. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Joseba Lekuona

HARGIN GARAIKIDEA



HEMEN ARTISAUEI PREZIOA JAISTEKO ESKATZEKO OHITURA DUGU, BAINA EZ IBERDROLARI



Ura eta minerala garelako artisaua eta artista da. Artistentzat artisauetia eta artisautentzat artistetia. Hurbiltasuna eta babesak sumatzen ditu harrien artean, kobazuloan bezala. Hargintza garaikidea egiten du. Aldi berean, praktikoa eta erabilgarriak diren artelanak maite ditu bereziki, jatorre dotoretan dauden bere platerak, adibidez. Orain pantailan ikus dezakegu Petrus Erdi Aroko harginarekin solasaldi birtual moduko batean, *Petrus* film dokumentalean.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nola iritsi zinen hargina izatera?

Betidanik gustatu izan zait marraztea eta margotzea. Horregatik, institutuan amaitu ondoren, Iruñeko Udalaren Lantegi Eskolan ikasi nuen, duela jada 30 urte. Hasi nintzen hargintza gustukoa nuelako eta, gainera, lanbide arteko oinarrizko soldata ordaintzen zidaten. Bixia da, baina garai hartan ikasteagatik ordaintzen zidaten eta orain, aldiz, neuk lan egiteko ordaindu beharra dut eta ozta-ozta bizirauteko.

Iruñekoa estatuko bigarren lantegi eskola izan zen, Alemaniako lantegi eskolen eredu hartuta eta alderdi guztien adostasunarekin sortu zuten. Oso ekimen interesgarria.

Eskola honekin hainbat zaharberritze lan egin genuen, besteak beste, Iruñeko Gaztelu Gibleko atari bat. Han bost urte izan nintzen irakaslea ikasketak amaitu ondoren, baina nik hargina izan nahi nuen eta nire tailer propioa zabaltzeko, lehenbizi Noainen eta gero Urnietan.

Zer egiten du hargin batek XXI. mendean?

Harginarena ofizio galdua da. Denetarikoa lan motak egiteko aukera izaten dut: eraikuntzan zaharberritze lanak egiteko deitzen naute. Foruen monumentuaren oinarrian dagoen bakearen alegoria zaharberritze nuen, adibidez, eta berdin Luis Pareten iturria edota Artxibo Nagusiko armariaren koroa, besteak beste. Eskultura erlijiosoa ere egin izan dut: Nafarroako ospitaleko



Joseba Lekuona

IRUÑEA, 1972



Hargintza ikasi zuen Iruñeko Udal Lantegi Eskolan eta han bertan irakasle aritu zen bost urtez. Tailerra Urnietan du. Zaharberritze lanak, eraikuntzakoak, hilarriak, enkarguzko piezak, baxerak eta bere sormenezko artelanak egiten ditu harri mota eta teknika desberdinak erabiliz. "Hartea, sormenezko hargintza" da bere marka eta Haruru Filmak estreinatu berri duen *Petrus* dokumentaleko protagonistetako bat da. Lan hau uda osoan zehar herriz herri ari dira ematen aurkezpen gisa.

kaperan dagoen San Migelen irudia nirea da.

Oso ofizio galdua da eta aldi berean oso zabala: elementu arkitektonikoak egin ditzaket (harresiak, arkuak) edo taila bat, adibidez. Bestalde, hargintza oso lotuta egon da betidanik lan funerarioarekin. Hilarriak bidegurutzetan jartzen ziren hasieran eta gero kanposantuetan. Sinbolismoz beteriko lanak izaten dira hauek eta naturan dagoen materialik gogorrenarekin, harriarekin alegia, egiten dira agian betiko iraun dezaten ideiarekin. Arte funerarioko gauzak beste webgune batean dauzkat, oraindik tabu handiak ditugulako heriotzaren inguruan. Arlo honetan ohorea izan dut Lolo Rico, Joxemiel Bidador edo orain berriki zendu den Aitor Etxarteren hilarriak egiteko.

Eta honetaz guztiaz gain, noski, nire sormen lan propioak egiten ditut. Orduak eta orduak ematen ditut nire tailerrean isilpean eta denbora asko dut pentsatzeko. Duela lau urte lehen erakusketa indibiduala egin nuen Apaindu aretoan: *Panta Rei*. Uhinaren inguruan lan egin nuen. Harria uhinen bitartez mozten da. Kolpe bat ematean, uhinak transmititzen dira. Uhin horiek presioa sortzen dute eta horrela mozten da harria.

Nolako da zure eguneroko lana?

Gure iruditegian harria oso lotuta dugu mundu zaharrarekin eta neu ere formatu naiz antzinako teknikekin, baina nire sormen lanei arkeologia edo zahar kontzeptu hori kendu nahi izan diet beti. Gauza modernoak sartu ditut beti nire obratan. Biguintasuna ere eman nahi diot berez horren gogorra den materialari. Nire lanak erakutsi dit, adibidez, harria behin moztuta malgutu daitekeela. Behin lau metro-tako xafla bat egin nuen, 5-6 zentimetro-tako lodierakoa, eta tolestu egin zela ikusi nuen. Harriak badu malgutasuna! Harrituta gelditu nintzen.

Ikertzea asko gustatzen zait. Donejakue bidearen Nafarroako lau etapen inguruko lan bat egiten ari naiz. Lau figura geometriko dira, lau harri mota desberdinez egindakoak.

Tokian tokiko harriak ezagutzea interesatzen zait eta honek ingurune

geologikoak aztertzea eraman nau. Harginarena ofizio galdua den bezala, harrobiak ere gero eta galduago daude.

Zer harri mota erabiltzen dituzu?

Iruñerriko harri urdina, adibidez. Ezkaba mendian dagoen kalkarenita gogor samar bat, oso ugaria dena hemen inguruan eta toponimo askoren sorburua: Arriurdiñeta, esate baterako. Ziudadelako Glazisetan dagoena da eta ertzetan dauden harrietan ezagutzen dira tenperaturaren gora beherak: kimikoki desaginda daude hego aldera ematen dutenak eta ipar aldera daudenak, aldiz, bikain daude.

Niretzat oso aurkikuntza handia izan zen Igantziko marmola. Zoragarri polita da: zuria beta urdinarekin. Igantzin bada harrobi ikaragarri bat. Orain hormigoia eta harri xehea egiteko erabiltzen dute eta justizia poetiko bezala hasi nintzen ni edertasunez beteriko gai hori erabiltzen baxerak egiteko. Jatetxe dotoreetarako egiten ditudan baxerak marmol horrekin eginak dira.



Zer sentitzen dugu, gizaki bezala, mendian edo haitzen artean gaudenean? Hurbiltasun bat sumatzen dugu, babesa, eta hori bera da nik sentitzen dudana"

Eratsungo marmola ere erabiltzen dut. Garai batean oso garrantzitsua izan zen material hau, baina orain ez da erabiltzen. Harrobia itxita dago ez zituelako ingurumen arauak betetzen. Alaitz edo Oskiako harrobiak zabalik dauden arren, soilik harri xehea egiteko erabiltzen dira.

Kintoan sekulako magnesita harrobia dago. Erraldoia da, baina baimen piloa eskatu behar dira han sartzeko.

Nik ofizioa aldarrikatu nahi dut eta materiak askotan berak bakarrik hitz egiten du. Materialeak erantzun askotarikoak ematen dituzte eta hori kontu ederra da.

Hargina eta eskultorea zara zu?

Ez dut desberdintasunik ikusten. Neure burua hargintzat ematen dut. Zaila da desagertzen ari den ofizio bat deskribatzea. Edozein modutan ere, nik gure lanaren duintasuna aldarrikatzen dut beti.

Urte askotan joan izan naiz azoketara nire lanak saltzera, baina orain

ez. Nire lanak garestiak direla entzuteaz nekatuta nago. Nik honetaz bizi nahi dut, besterik ez. Hemen, artisauei prezioa jaisteko eskatzeko ohitura dugu, baina ez Iberdrolari. Ahulenari exijitzen diogu aberatsari baino gehiago. Horregatik askotan artisauek egiten dugu merkatuan saltzen ahal dena soilik eta sorgin gurpil batean sartzen zara horrela.

Azoketan jendeak askotan galdetzen dit ea zenbat balio duen armarri batek. Armarriak ez ditut gustuko dauzkaten konnotazioekin, baina egiten ditut jan behar dudalako. Nire ustez, jendeari

gustatzen zaizkio Erdi Aroaren nola-baiteko idealizazioa dagoelako. Eta pentsalari zenbaitek uste du hori gertatzen dela neo-feudalismo batean bizi garelako. Orduko jaunak Leiungo edo ez dakit nongo jaunak ziren eta gaur egungoak, aldiz, Zarako edo Microsofteko nagusiak dira eta gu haien esklaboak. Hori gero eta argiago ari gara sentitzen.

Dena den, nire galdera da: zertarako nahi duzu armarri bat noblea ez bazara? Nahasmen handia daukagu eta handinahia oso zabaldua dago.

Orduan artisauek eta artisten arteko muga oso fina da, ezta?

Bai, hala da. Artisautza sortzailea egiteko joera dago gero eta gehiago. Artisautza garaikidea da bide bakarra. Gero eta argiago ikusten dut ezin zarela gelditu beti gauza bera egiten saldu ahal izateko. Konpetentzia gero eta handiagoa da. Txinatarrek zuk baino hobeki egingo dute, seguruenara.

Nire ustez artisautza da zure eskura dauden tresnak erabiltzen dituzunean ideia bat gauzatzeko. Teknologia erabiltzen da beti. Eskuz egitea goraipatzen





da, baina horrek bakarrik ez du bermatzen balioa izatea.

Artistentzat artisauegia naiz eta artisautentzat artistegia. Artea gero eta gehiago kontzeptualki lan egiten den zerbait da gaur egun, eta ez eskuekin. EHUKo Arte Ederretako Fakultateko tailerra oso jende gutxi erabiltzen du orain.

XVI. mendeko altzariak ikusten ditugu orain eta artetat hartzen ditugu, baina bere garaian artisau on baten lanak baino ez ziren izango.

Nola iritsi dira zure platerak jateke handietara?

Nik beti aldarrikatu ditut artelan erabilgarriak, eta horregatik egiten ditut harrizko platerak, hotza eta beroa izugarri ongi mantentzen dituztenak.

Mugaritzen erabiltzen dituzte, adibidez, izozkia zerbitzatzeko. Mugaritzen sentzorialitatea nahi dute azpimarratu haien sukaldaritza berriarekin. Bilatzen dute bazkaltiarak nola harritu, bai jateketan baita etxetan ere, eta horretarako oso egokiak dira harrizko ontzi

hauek, eskuaren formari oso ongi egokitzen zaizkionak, gainera. Mugaritzerako Igantziko marmolezko lau plater dorre egin nituen. Berez eskulturak dira, baina, aldi berean, platerak.

Harrien ezaugarriak baliatzen ditut baxerak eta sukaldeko ontziak egiteko. Ofita harriak, esate baterako, tenperatura oso altuak agoantatzen ditu. Mamiari kezkelurri zaporea emateko erabiltzen zen lehen.

Mugaritzekin lan egiten dut eta gauzak egin izan ditut Aithor Zabalarentzat (Los Angeleseko Somni restaurant) Hélène Darrozek Londres eta Parisen dituen jateketarako eta, azkenekoa, Aitor Jerónimori egin diodana izan da, Singapurren duen Basque Kitchen jatekterako.

Zer da Petrus?

Petrus kultur ekimen gisa sortu zen, Petrus Museumeko egilea den Simeón Hídalgoen eta bion arteko harremanetik abiatuta. Arte erromanikoa eta XXI. mendeko hargintza sortzailea lotzen dituzten ildoak marraztu nahi izan di-

tuzte egileek, bai eta museoko sormen-prozesuaren eta negozio artistikoaren arteko dibergentziak ere. Haruru Filmak ekoiztutako Ruben Marcilla eta Helena Bengoetxeak izan zuten Itzagaondoko Lizarraga herrian dagoen museo honen berri eta deitu zidaten zerbait egiteko. Simeón Artearen Historian eta Teologian espezialista da eta berak ikusi zuen hargin baten aztarna jarrai zitekeela hainbat tokitako kapituletan hosto-kiribildin berdinak agertzen zirelako. Gainera Gergitiaingo elizan kapitul batean sinadura agertu zen: *Petrus me fecit*. Petrus Erdi Aroko hargin maisua zen eta bere izena agertzea ez da batere ohikoa, bere garaian harginak ez zirelako jenio ezagunak eta oso lan anonimoa egiten zuten. Nafarroan dauden lanen artean, adibidez 8-10 sinadura baino ez dugu ezagutzen.

Erroma inperialaren izpiritua Europa osora nahi zuen zabaltu erromanikoak eta landa eremuko erromanikoan ikusten da nola plazaratzen zituzten mezuak irudien bidez jendearenganaino helarazteko.

Petrus ekimena herri txikien desagerpenarekin ere dago lotua. Filmean egiten dugun erromanikoaren ibilbide horretan ikusten da hori argi. Zinemagintzaren bitartez toki-ko artea eta landa-garapena balioan jarri nahi ditu *Petrus* proiektuak.

Nola dago kontserbatuta gure Erromanikoa?

Ondare handia izanda, diru asko inbertitu da, baina kontuan hartu behar da gero inbertsio horren zati bat itzuliko dela, adibidez, turismoaren bidez. Adibide argi bat da Gasteizko katedrala. Txarrenetik onena ateratzen jakitea da hori, azken finean.

Alde handia dago Petrusena eta zure lan moduaren artean?

Ez dakit alde handirik egongo zen. Haiek mugitzen ziren askotan herri herri eta hiriz hiri, baina gaur egun gauza bera gertatzen da hiri berri bat egiten denean munduko auskalo zein txokotan.

Hargin garaikidearen bizimodu ordu asko sartu behar dira eta sormen lanean eten gabe aritu, honetaz bizi ahal izateko.

Zergatik euskaldunok maite dugu harria hainbeste?

Ura eta minerala gara. Horregatik mineralarekin dugun harremana ezinbestekoa da.

Harritzko herria da gurea. Gabriel

Arestik hala zioen eta Oteizak ere azaltzen du harrespila espazio magikoa dela. Elementu sinbolikoak dira eta gure herrian dugun kosmogonia kolektibo hau halako ideietatik dator. Horrek badu zerikusirik ere Aro Modernoan Oteiza, Chillida, Mendiburu... bezalako artista handiak izatearekin. Zizelkariaren herria da gurea.

Ulibarrenak, bere aldetik, azpimarratzen zuen herri honen harriekiko duen hurbiltasuna. Estetika euskararen inguruko bere lanetan "*acervo euskaro gremial*" kontzeptuari buruz ari zen. Pirinioetatik hona eta eguneroko elementuetan, edertasun estetiko hori detaile txikienetan erakusten duen herria gara. Gazta egiteko tresnak edo baserrian erabiltzen zirenak, adibidez, irizpide horien arabera zeuden diseinatuta. Estetikoki atsegin eta politak dira, baina, aldi berean erabilgarriak eta niretzat hori da helburu gorena.

Jorge Oteizak honetaz hitz egiten zuen. *Nociones para una filología vasca de nuestro preindoeuropeo* bere lanean azaltzen zuen honen inguruan zuen harrikada handia: zer sentitzen dugu, gizaki bezala, mendian edo haitzen artean gaudenean? Hurbiltasuna sumatzen dugu, babesa, eta hori bera da nik sentitzen dudana. ●





Europako Fondoek mugak



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Abuztuan Espainiako Estatuak Europako Errekuperazio Fondoek lehen 9.000 miloi jaso ditu. Estatuak transferentzia lege eskatutako 69.500 miloi euroen lehen zatia eskuratu berri du horrela. Lehen fondo hauek jasotzeko, aurrekontuetan islatuko diren 25 irizpide bete behar izan ditu Estatuak. Lanbide heziketa, finantza elkartrukeen tasa eta tasa digitalaren arlokoak dira besteak beste aurreikusi diren irizpide horietako batzuk. Datorren urtean, transferentzia gisa eskuragarri izango diren beste 12.000 milioiko fondoak jasotzeko azterketa zorrotzagoa pasa beharko du Madrilera. Izan ere, fondo horiek eskuratzeko erreforma zorrotzak bete beharko dira Estatuaren aldetik, lan merkatuarena barne.

Transferentzien kapituluaren onurak bistakoak dira maileguen arlokoekin alderatu ezker, azken hauek ez bezala lehenek –itzultzeko beharrik gabe– printzipioz finantza kosturik sortzen ez dutelako. Nolanahi ere, ikuspegi zabalago batetik Europako Erresilientzia eta Errekuperazio Planeko transferentziak kitatu egin behar dira, ez dira opari hutsa.

Hasteko, jasotako dirua baldintzapekoa da, betekizun zorrotzak dituzte estatuek hauek eskuratzeko. Baina, betekizun horiek ez dute zerikusirik beti egokia den diru publikoaren erabilera zuzena bermatzearekin, baizik eta ekonomia-aren arloko neurri indartsuekin. Europako

Oraingoan ez dira
gobernuak zorpetzen
direnak, EB bera
baizik. EB da kapital
merkatuetara era
komunean jo duena
Europako Errekuperazio
Fondoak finantzatzeko

Seihilekoaren esparruan Espainiako Gobernuak egiturazko erreformak egiteko konpromisoa hartzen du diru transferentzien ordain gisa. Europar Batasuneko (EB) instituzioen aburuz erreforma horien helburua ez da izan behar zerga sistemaren progresibitatea hobetzea, ate birakariak debekatzea edo zerga paradisuak deuseztatzea, adibidez. Aipatutako egiturazko aldaketak ez daude Europako Batzordea edo Europako Banku Zentralaren agendan.

EBk agintzen dituen egiturazko politikek bestelako norabidea erakusten dute. Horien artean nabarmentzekoa da lan merkatuaren ikuskera ortodoxoa. Europako instituzio nagusiak guztiz temetzen dira lehendik ere narriatuak dauden lan harremanak are gehiago estutzen,

ditxosozko malgutasuna handitze aldera. Jakina, lan malgutasuna enpresen errentagarritasun beharrei men egiten dien praktika multzo lege ulertzen da ikuspegi ofizialek. Batasuneko instituzioek gogoko duten beste egiturazko erreformetako bat pentsioen sistema publikoarena da, bere iraunkortasuna bermatzeko aitzakiapean beti ere. Azpimarratzekoa da arlo honekin lotuta lobbygintza ikaragarria dagoela finantza erakunde aldetik, zahartze demografikoaren inguruan dagoen negozio ahalmen itzelarekin bat datorrena. Eta negozio hori borobiltzeko ezinbestekoa da administrazioa eta jarduera publikoa arlo horretatik kanporatzea, bertako jarduerak eta praktikak ahal bezainbat merkatuen esku utzita eta pribatizatuta.

Azkenik, transferentzien kostuei dagokionean, ez dira opari bat: zorra metatzen dute. Oraingoan ez dira gobernuak zorpetzen direnak, EB bera baizik. EB da kapital merkatuetara era komunean jo duena Europako Errekuperazio Fondoak finantzatzeko. Baina, banku eta finantza erakunde handiek baldintza faboragarrietan maileguz utzitako diru hori itzuli egin behar da epeak bete ahala, interesak eta kapitalaren amortizazioa ordainduta jakina. Mailegua EBren aurrekontuaren menpe geratzen denez, diru ordainketak eta itzulerak gobernuak aurrekontu horri egindako ekarpenen bidez gauzatu beharko dira ezinbestez etorkizunean. ●

***OHARRA:** akats baten ondorioz, Karmelo Landaren iragan astekariko –2744 zenbakia– *Naziogintza, ezinbestean* artikuluari azken bi parrafoak falta zitzaizkion. Webgunean aurkitu dezakezue oso-osorik. Barka eragozpenak.

Sartze gogorra



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Ikasturte berria hasterakoan, ez daiteke erran giro orokorra alaia dela. Albisteak entzun gabe ere, liburutegi batera joatea aski da: gerlari buruzko liburu gero eta gehiago aurki daiteke salgai: XX. mendeko bi mundu gerletik orain arteko gatazkei buruzko ikerketak; kolonialismoak eragin gerlak; gerla garaikideak Afganistanen, Iraken, Sirian, Libian; gerla estrategien bilakaera; gerla egiteko modu berriak; gerla “zuzenak”; “zibilizazio” gerlak; gehiegikeriak; eraso kirurgikoak; gerla numerikoak; itsaspeko gerlak; komunikazio gerla; gatazka psikologikoak... segurki, ez da sarbide eskasik gai horri buruz. Tartean, Gaïdz Minassianek argitaratu du *Les Sentiers de la victoire* (Garaipenaren xendrak): saiakera horretan, idazleak aztertzen ditu hogei mendez gertatu gatazkak, eta galdera interesgarri hau egiten du: “Gerla bat oraindik irabaz ote daiteke?”. Erantzuteko, azaltzen du garaipena nozio konplexua dela, eta bereziki egun ez dela gehiago izaten ahal denek onartutako garaipen masibo eta lasterrik. Egungo gerlak ezin bururatuak dira, garaipen militar ala politikorik gabekoak dira, eta haien itzalean iritzi publiko eta pertzepzio gatazkak daude, trenkagaitzak.

Ez dugu hemen Afganistanen bizi dutena pairatzen, bistan dena. Gure auzoan familia afganistandar bat instalatu da, aita-amak hiru haurrekin, eta zorionezko bakean bizitzeko xantza dugula diote. Halere, bazter guzietan sentitzen da tentsioa, agresibitatea, mesfidantza, bortizkeria. Gobernuak hiritarrak bat bestearen kontrolpean ezarri nahi ditu eta zaintza numerikoa areagotzen du: jagoitik, gure bizitza intimo, sozial eta profesionalak agerian ezartzea galdegi-

na zaigu, sarean. Begiratuak sentitzen gara, zigorgarriak hobengabeak izanik ere, eta hori ez da sano.

Gerla mota ote da hori? Ez oraindik. Baina ematen du hurbil dagoela. Asurantzek ere “gerlak eragin kalteak” sartu dituzte orain proposatzen dituzten kontratu arruntetan. Baina gerla, noren artean? Gobernua hiritarren kontra? Hiritarrak bat bestearen kontra? Klase sozialen artekoa? Eta zertarako? Bote-rea erdiesteko? Etorkizun jasangarria bermatu ahal izateko klima aldaketagatik? Interes kolektiboarentzat? Nork bere buruarentzat?

Giro horretan, eta burrustan heldu zaizkigun kezka existentzialak jasaten laguntzeko, nehoiz baino gehiago beharrezkoak ditugu elkartasuna, maitasuna eta adiskidetasuna, bai eta kirola, artea eta literatura ere, hatsa eta gibelapena hartzeko.

Uda honetan gozatu ditut mendi ibilaldiak, musika errepikak, lagun arteko

elkarretaratzeak, besarkadak eta ezteiak, baratzea eta etxea. Ezagutzen ez nituen idazle bikainak ere ezagutu ditut, hala nola Emmanuel Dongala kongorrra. Honek, Beethovenen *Sonata mulattica* piezaz egin miaketan ondotik idatzi du *La Sonate à Bidgetower* eleberri ederra: hizkuntza apain xoragarri batean, XVIII. mendeko musikari gazte odol-nahasi baten bizitza kontatzen digu, Europan zehar, giza harremanak zorroztasun handiz galdekaturik, xuri eta beltzen arteko arrazakeria ezagunaz haratago.

Ikasturtea gogorki hasiko zaigu, dena manamendu eta mehatxu, baina horregatik ez dugu izugarrikerien aitzinean amore eman beharko. Pentsatzen dut intuizioak, irudimenak eta jendetasunak gomendatzen digutena segituz, arrazoinamendu itsuen aurka, babesten saiatu beharko dugula aitzina joateko gogoia eta poza, gure baitan eta gure inguruan, hala eta guziz ere. ●



PAULA ESTÉVEZ



LAURA PENAGOS
ANTZEZLEA

Sendabidea

Ahantzura ezagutzen dugu, memoria izan dugu-eta; isiltasunean gure baitara biltzen garenean badakigu zerbait ahaztu dugula. Zer ote da?

Gaur egun, gero eta gehiago, gau ilunean murgilduta bizi gara; sinesteari utzi dion jendartea da gurea, amesteari utzi diona, benetako errealitatea ez ikusteko bizkarra ematen diona. Ergelak ginela esan ziguten, ez genuela deus balio, dena gaizki egiten genuela, basatiak, itsusiak, beltzak, zuriak, gorriak, horiak, astalapikoak, pobreak ginela esan ziguten, eta guk sinetsi egin genuen. Pixkanaka, hutsik sentitu ginen, beldurrez betetzen joan ginen, dena desitxuratu zen, talde-tik, tributik, animalietatik eta basotik deskonektatu ginen. Gure boterea galdu genuen. Etorkizunaz hitz egin ziguten, segurtasunaz, zigorra eta saria sortu zituzten, bizitzeko morroi-lana inposatu ziguten. Otzandu egin gintuzten.

Gure otzantzea urteetako, hamarkade-tako eta mendeetako prozesua izan da; antzinako eta milaka urteko kulturak zertan geratu diren ikusi besterik ez dago. Antzinako jakinduria barregarri utzi eta estigmatizatu egin zuten, Tawantinsuyun esaterako (Kolonbia, Venezuela, Ekua-dor, Peru eta Boliviaren jatorrizko izena kitxuaz), errukirik gabe ezarri zieten legea, "zibilizazioaren" legea, jainkoaren

eta gizonen legea; ukatu eta lurretik erauzi zituzten. Bertako jendeari bere kultur erreferenteak suntsitu zizkioten. Gizakien arteko, arbasoekiko eta naturarekiko harremanen zentzu sakona ezabatu zuten. Pertsona baten banakotasuna ez da existitzen isolamenduan, taldearen eta pertsona bakoitzak bere baitan hartzen duen lekuaren arabera soilik garatzen baita.

Gizarte mindua gara, gaixorik eta ingurumenetik isolatuta sentitzen gara, eta, hain zuzen, gabezia horrek dakar zauritu izatea, gure mendealdeko gizarte industrializatuen gaixotasuna.

Geure zauritu izaeran, bizitzaren mamia lurperatu genuen, eta betetzen gaituzten jarduerak eta sendabidea erakusten digutenek huskeria dirudite. Zer egiten ari gara mundu honekin? Zein ametsi jarraitzen diogu amildegira bagaramatza ere? Esna gaude? Lotan? Bizirik ala hilik gaude? Noraino joan behar dugu oroitzeko? Zenbat belaunaldi sendatu behar ditugu? Zein istorio desagitea tokatzen zaigu? Helmuga mikatz batera moldatu eta etsi egin behar dugu ala gillotina dantzatu behar dugu elementu eraldatzaile gisa? Edo posible izango ote da noizbait gizateria argiztatu zuen lehen sua aurkitzera eramán gintuzten dohai-nak eta talentuak berreskuratzea? ●



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Norberanismoa

Frankismoaren amaierako eta ondorengo urtetan asko eztabaidatzen zen sozialismoa, kapitalismoa, komunismoa, eta horrelako gauzez. Baina askok zion hemen zegoena 'norberanismoa' zela: 'Lenengo norberana aurrera etara eta bestiak allakuidas'" (Bergara aldeko Hiztegia)

Norberanismo betean bizi gara. Lehen ere hala zela baieztatzen digu aipuak, baina orain ageri-agerian geratu da: sutan probatzen da nola-koa den eltzea. Baina zer espero geneza-keen? Autofikzioaren sasoian, askatasun indibidualak aldarrikatzea edozeren gainetik, neoliberalismo basatian. Ni-ni

sasoia, baina ez gaztelaniazko esanahiaz, nerabe errebeldearen antza badu ere. Ni, ni eta ni. Ni, nire, niretako. Ego kon-tuak, eta ez nabil Deba ibaiaren adarraz. Ni naiz munduko tripako zila. Nik balio dudalako.

Baina zer gertatu da hain euskaldu-na den "gu" horrekin? Gure herria, gure etxea, gure ama... Hizkuntza tradizioa galtzeaz batera, gu-tik ni-ra egin dugu salto. Harrotzen gintuen "gure" hori de-sagertu egin da, eta "nire eskubideak" kezkatzen du norberanista; gure osasu-nak, osteria, ez.

Esandakoa, norberanismoa. Egois-moa, berba baten. ●

Irailak ez du errurik



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Iraila iritsi da eta errua bota diot berriro. Ez da urte erraza izan, uda samurra ere ez. Ekainean honezkero aurreikusten genuen zaplaztekoa latza izango zela, baina jaso ditugun guztien ostean hirugarren masailik ez zaigu gelditu. Aingura astun bat daramagu denok oinetatik zintzilik, eta zama hori garraiatzen genuela berrikasi behar izan dugu oinez bi urte hauetan. Baina, errua irailak dauka aurten ere, ez aingura hanketara lotu digunak.

Aspalditik gaude triste, nekatuta eta haserre, baina errazagoa da kulpaa uda osteko honi botatzea. Errazagoa da hori, gure ustezko gorputz egonkorretan ireki diren pitzadurak aitortzea baino. Errazagoa, urte honetan galdu ditugun lagunen hutsuneak eragiten diguna aitortzea baino, zaintza lanen krisiak gure etxea nola lurrikaratu duen onartzea baino, lanean duzun ziurgabetasuna berbalizatzea baino, motibaziorik ez duzula aitortzea baino; oinetan lotuta daramazun ainguraz hausnartzea baino.

Nekatuta nago. Frustratuta. Denborak ihes egiten didala sumatzen dut, eta hura harrapatzeko korrika egin ezin

Ez da zilegi zure herriko parkean lagunekin lata batzuk edatea, baina zilegi da karrera amaitu eta lanerako aukerarik ez dagoenez hirugarren master batean izena eman behar izatea

dudala. Nire gurasoak gaztaroaz mintzatzen diren bezala oroitu nahi dut nik nirea, baina etorkizuneko nostalgiarako ateak ixten ari zaizkit apurka-apurka muturren parean. Gazteok obeditzetik haratago bizi proiektu bat dugula dio kantu batek, baina desobedientzia minimoa ere ez da zilegi oraingo belaunaldi berrirentzat. Ez da zilegi zure herriko parkean lagunekin lata batzuk

edatea, baina zilegi da karrera amaitu eta lanerako aukerarik ez dagoenez hirugarren master batean izena eman behar izatea. Ez da zilegi militantziarako bilerak aurrez-aurre izatea, baina bai ehun pertsonako ikasgeletan azterketa presentzialak egitea. Ez da zilegi gure ikuspuntua plazaratzea-komunikabideetan “negarti”, “berekoi” edo “hiltzaile” deitu gaituztenean, baina zilegi da bi urte hauetan guri buruzko titularrak irakurri behar izatea. Gure tristura, haserre eta frustrazioa ez da zilegi inoiz, eta akaso hori dakigulako islatzen dugu plastikozko zoriontasuna sare sozialetan, gerora beste aldaera batzuekin lehertzen bagara ere. Gure suizidio tasaren gorakadan gorpuzten bada ere.

Nekatuta nago. Frustratuta. Baina errua irailarena da. Errazagoa delako eztanda eragilea jomugan jartzea, leherketa berriak saihesteko zergatien analisi bat egitea baino. Akaso, horregatik egiten dizkiote hainbeste kanta hilabete zikin honi. Eta irailaz ari naizen bezala ari naiz gazteez; baina guri, gazteoi, irailari ez bezala, ez digu inork kanturik eskaintzen. ●



50^{urte}
TXERTO A

TRETATXU
LAPURREN GOBERNADOREA
Hektor Ortega

TELESFORO MONZON
ARISTOKRATA ABERTZALEA
Pako sudupe

www.txertoa.eus

be
gi
ra



ESKOLA SARTZEA IPAR EUSKAL HERRIAN

Murgiltze eredua abiatu dute, Hezkuntza Ministerioaren baimen ofizialik gabe

Aiherra, Arrosa-Ortzaize, Idauze-Mendi eta Larraineko eskoletako ama-eskoletan euskaraz hasi dute ikasturtea, nahiz eta errektoretzaren erantzun ofizialik ez ukan. Eskola sartzeara pasa ondoko asteburuan jakin dute azkenean eskatutako ia guztia ukanen dutela. Larraineren kasua haatik ez da argitua. Zigorrek saihesteko gisan, irakasle ohi bat hasi da klasea ematen bertan: "Herriak bere baliabideekin gauzatuko du murgiltze eredua". Borroka luze baten ondotik lortu dute euskarazko murgiltze eredua.

Irailaren 2a da, ostegun goiza eta eskola sartzeara dute Ipar Euskal Herriko haurrek. Lehen aldikoz sartzeara osoki euskaraz egin dute Ortzaizeko, Larraineko, Idauze-Mendiko eta Aiherrako ama-eskoletan, nahiz eta horretarako ofizialki baimenik ez ukan. "Eskola kexu, murgiltzea behar dugu" banderola oraindik hor dute Ortzaizeko eskolaren sarreran estekaturik. Zakua bizkarrean, aldarriaren aitzinetik pasa dira umeak, eta hortxe dute errietsa, gelako atean harrera euskaraz egiten ari. Harreraren gisa, kurtsoa ere euskaraz egingen diena. Orotara, 29 haur dira aurten Ortzaizeko ama-eskolako hiru urteetan eta hauen gurasoen %94,5 dira euskarazko murgiltze ereduaren alde. Gurasoez gain, irakasleak eta herriko hautetsiak ere dira horren alde. Horregatik zioten urte hastapenean gutun bidez errektoretzari murgiltze eredua irekitzeko eskaera luzatu. Gisa berean jokatu zuten Larraine eta Idauze-Mendiko eskola publikoek eta Aiherrako eskola pribatuak.

Baina 2021-2022 ikasturtea heldu zaie, Frantziako Hezkuntza Ministeriotik erantzunik errezibitu gabe. "Ez dugu ulertzen zergatik borrokatu behar izan dugun urte oso batez: gure eskaera legitimoa eta naturala da", dio Floriane Changala guraso ortzaiztarrak.

Irailaren 6rako dute finkaturik CDEN Hezkuntza Nazionalaren Departamentuko Kontseiluaren bilkura eta orduan jakin behar lukete ofizialki murgiltze eredua baimentzen ote zaien. Eskola sartzearen ondoko asteburuan jakin zuten ordea murgiltze eredua onartuko zaiela Aiherra eta Idauze-Mendiko lehen hiru urteentzat eta Ortzaizeko

lehen bi urteentzat –hirugarren urtearentzat ere beharbada–. Larrainek haatik erantzunik gabe segitzen du, alta, Antton Kurrutxarri Euskararen Erakunde Publikoko presidentek errektoretzatik jakin ahal izan du teknikoki, pedagogikoki eta baliabideen aldetik ez dagoela arazorik. Borroka luze baten ondotik lortu dute ia nahi zuten guztia.

Horrela pasatzen dira eskola sartzeara *Liberté, Egalité, Fraternité* balore ederrak etengabe errepikatzen dabilen Frantziar eta honen menpe diren hizkuntza gutxituen lurraldeetan. Parisetik ikusita hiru hitz hauek baino garrantzi gehiago du Frantziako Konstituzioak eta honek dakarren bigarren artikuluko lehen esaldiak: "Errepublikaren hizkuntza frantsesa da".

"Aldi oro da zaila murgiltze eredua lortzea. Iaz Hiribururentzat eraman zen borroka, aurten beste lau herrientzat. Baina aldi honetan kezagarriena da murgiltze eredu osoa dugula zalantzan jarria", dio Jean-Marc Ocafrain auzapezak, sartzeko lehen egunean eskolako korralera bertaratutakoak. "Erabakiak Parisen edo aski gora hartuak dira, ez dute Hezkuntza Nazionalako hementxo ordezkariak erabakitzen", dio Marie-Andrée Ouret Biga Bai elkartearen presidentek. Horrela esplikatzeko du ikasturtea erantzunik gabe hasi behar izana.

Bai ala bai, ama-eskolako kurtsoak euskaraz eskainiko direla abisatu zuten Arrosa, Aiherra, Altxürükü, Idauze-Mendi, Larraine, Mendikota, Ozaze, Ortzaize eta Zalgizeko auzapezek –hots, lau eskola hauei loturik diren herriek–, abuztuaren 20an errektoreari bidali gu-

tunean: “Zuen erantzunaren esperoan, jakin gure eskoletako ama-eskoletako umeei euskaraz irakasteko neurriak bideratzeko hautua egin dugula, eta hori denbora osoz eta irailaren 2tik aitzina”.

Frantziako Hezkuntza Ministerioa jakinean zen, eta hala eta guztiz ere ez die zuzenean eta ofizialki erantzun. “Behar-ordurako erantzunen zigutela erran ziguten, baina irailaren 2an gara, sartze eguna dugu eta ez dugu erantzunik”, dio Ocafrainek harriturik.

Frantziako Hezkuntza Ministerioa presiopean denaren isla izan daiteke abuztuaren 31ko prentsaurrekoaren bezperan komunikabideei bidalitako agiria. Horrela jakin zuten auzi honi buruzko hastapeneko erabakia: ama-eskolako lehen urtearentzat bakarrik onartzen diete murgiltze eredua eta hori Ortzaize, Aiherra eta Idauze-Mendiko eskolentzat.

LARRAINEN, ERRETRETADUNA IRAKASLE

Haatik, oraingoz Larraineri ez zaio onartu, eskola ttipia izanki, maila guztiak batten dituen klase bakarra duelako eta seguruenik Hezkuntza Ministerioaren arabera horrelako baldintzetan ez litzatekeelako frantsesaren irakaskuntza bideratuko. Ofizialki, ez du arrazoi hori ematen, eskaera honek “galdera espezifikok” ondorioztatzen dituela zehaztuz, “azterketa sakonagoa” behar duela irakurri daiteke errektoretzak komunikabideei bidalitako gutunean. Kurrutxarriren ustez “arazoa politikoa” da, ikusiz errektoretzatik jaso azken berrien arabera ez dela inolako arazorik. Ondoko asteetan ukan beharko lukete erantzun ofiziala.

Legea irakaslearen kontra ez itzultzeko gisan, irudimena martxan jarri eta klaseak euskaraz eskaintzeko bidea asmatu dute Larrainen: erretretan den irakasle ohi bat hasi da kurtsoa euskaraz ematen. Eskolek errektoretzari bideratu presioa handia baldin bada ere, berdinberdina delako errektoretzatik eskoletara bideraturikoa. Irakasleek mehatxuak jasotzen ote dituzten galderari horra Biga Bai-ko presidentearen erantzuna: “Baliteke mehatxuak ukan izana... haien nagusia da Hezkunde Nazionala eta zigorrak bideratzeko arriskua hor da. Horregatik dugu kanpoko bat hartu, teoriarik honen gain ez duelako eraginik Hezkunde Nazionalak”.

Lau eskolen artean eta borroka hori eramaten dabilzan elkarteen artean

BORROKA LUZEA. Euskarazko murgiltze eredua lortzeko bidea gogortuz doa eta eskaera mobilizazioen bidez ere bideratzen dabilta eskolak.



DANI BLANCO

erabaki zuten erresistentzia bide hau. “Hezkuntza Nazionaletik baimenik ez baguen lortzen, ideia genuen saila guhaurk gure baliabideekin irekitzea, herriak bere baliabideekin murgiltze eredua gauzatuz”, Oureten hitzetan. Herriak erantzun du eta Basabürüako erretretadun bat lotu da irakaskuntza lanari. Sokatirak luzaz irauten badu, beste bi dituzte prest laguntzeko. “Anitz eskertzen da laguntza hau, beharrik jendea

prest dela eskukaldi baten emateko”, dio Aines Accoceberry larraintar gurasoak. Euskara baino haratago doa auzia honen iduriko: bistan da murgiltze eredurik ez duela nahi Frantziako Hezkunde Nazionalak, baina eskola ttipi-ttipi hau ez balitz hobeki litzateke gobernuak. “Hezkunde Nazionalak zernahi egingen du, zernahi estakuru atzemanen du gure eskola ahultzeko”. Hamahiru haur dira Larraineko eskola publikoan. Eskola tti-

pi-ttipia beraz, baina hustuz doan Zube-roarentzat ezinbestekoa.

IKASTOLEZ GAIN, 39 ESKOLETAN

Sail publikoan eta pribatuan murgiltzea garatzeko eskaera ez da berria. Ikastolez gain, euskarazko murgiltze ereduan bideratzen dabiltzan eskolak badira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan: hogeik eskola publiko eta hemeretzi pribatu –aurten irekitzekoak diren lau horiek kontuan hartu gabe– eta orotara, 1.100 bat ikasle biltzen ditu. Seaskaren sarean dabiltzan 3.900 ikasleak gehituz gero, Ipar Euskal Herriko ikasleen %10,7 da murgiltze ereduan.

Lehena 1997an ireki zuten Azkaingo Sainte-Marie eskola pribatuan, ama-eskolako lehen bi urteentzat ia denbora osoz, eta 1999an denbora osoz Uztaritzeko Saint-Vincent eskola pribatuan. Sail publikoari dagokionez, 2008an abiatu ziren Azkainen eta Donibane Garazin. Orduz geroztik, garatuz joan da eskaintza, 2004an sorturiko Euskararen Erakunde Publikoak estrategikotzat kokatu zuelako murgiltze ereduaren garapena, eta azken hamarkadan zehar murgiltzeari buruz gehiago komunikatu dutelako elebidunean dabiltzan Biga Bai, Ikas Bi eta Euskal Haziak elkarteek. “Hastapenetik legearen baitan ireki dira murgiltze sailak, Hezkuntza Ministerioarekin elkarlanean”, ohartarazten du Ouretek. Hezkuntza arloko legediak bese-lako bideak esperimintatzeko aukera ematen die eta horretaz baliatu dira euskarazko murgiltze eredu eskola publiko zein katolikoetan eskaintzeko.

Baina aldaketa sentitu da azken urteetan: “Sentitzen da Hezkunde Nazionalak ez duela gehiago murgiltze eredurik ikusi nahi. Irekitzeak bideratzeko azken protokoloa gogorra da, biziki zaila bilakaratzen du murgiltze sailaren irekitzea”. Iazko urte bukaeran aurkezturiko protokoloaz ari da, funtsean, Euskararen Erakunde Publikoak ere bozkatzearrefusatu zuena. Tonu aldaketa murgiltze ereduaren loraldiaren eta Molac Legearen testuinguruan kokatzen du: garapen hau gelditu nahi du Frantziako Hezkunde Nazionalak.

MOLAC LEGITIK KONSTITUZIO KONTSEILUAREN EBAZPENERA

Kezka eta ziurgabetasun handia sortzen du maiatzaren 21ean Frantziako Konstituzio Kontseiluak emandako epaiak: “Konstituzioaren 2. artikuluari segi, Konstituzio Kontseiluak gogorarazten



JENOFA BERHOKORIGON

du frantsesaren erabilera behartua zaiala zuzenbide publikoko pertsona moralei eta zerbitzu publikoko misio bat betetzen dabiltzan zuzenbide pribatuko pertsonaei. Administrazio harremanetan eta zerbitzu publikoetan frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea ez zaie gailentzen partikularrei, eta ezin dira horretara behartuta egon”.

Ebazpen honek laster estali zituen Molac Legeak sortu poz eta itxaropenak. Oroit gara, apirilaren 8an Frantziako Legebiltzarrak lege honen alde bozkatu zuela, 247 diputatu alde agertuz eta 76 kontra. Bozketa historikoa izan zen, jakobinismoak bideratu Frantziako Parlamentuan ezohikoa delako lekuko hizkuntzen aldeko postura. Bozketa honen harira ondokoa adierazi zion ARGIAri legearen oinarrian den Paul Molac diputatu bretoiak: “[Diputatuek] haien lurraldearen alde bozkatu dute, tokiko hizkuntzen alde eta Estatuaren makinaren kontra. Beraien buruaren nagusi egin dira”. Hizkuntza gutxituen alde dabiltzan elkarteek eta hautetsiek eraman xinaurri lanaren emaitza izan zen bozketa. Testu honek zekarren eskola publikoan ere murgiltze eredu lekuko hizkuntzan eskaintzeko aukera. Baina hortik bi astetara 60 bat diputatuk helegitea jarri zuten Frantziako Konstituzio Kontseiluan. “Helegitea ezarri duten diputatuen lurraldeetan ez da hizkuntza gutxiturik, baina ez diete besteei eskubiderik eman nahi”, zioen egun horretan kexu gorrian Molac berak. Konstituzio Kontseiluak ebazpena plazaratu zuen: frantsesez ez den murgiltze eredu konstituzioaren kontra doa.

Orduz geroztik, kezka, kexua eta ezjakintasuna nagusi dira lekuko hizkuntzen alde dabiltzan eragileen artean, baita hauen alde kokaturiko politikarien artean ere –horren lekuko, adibidez Jean-Rene Etxegarai Euskal Hirigune Elkargoko presidentek maiatzaren 21 horretan salatu “gerla deklarazioa”. Kezka are handiagoa da ikastolen gisako kontratu peko eskolen geroa delako zalantzan. Ebazpena hitzez hitz hartuz gero, hauen jarduna ere doalako konstituzioaren kontra –erreportaje honi loturiko elkarriketan Eneritz Zabaletak xeheki azaltzen digu jokoan dagoena–. Maiatzaren 29an 10.000 lagun batu ziren Baionan ebazpena salatzeko eta beste milaka ziren tokiko hizkuntza bat duten beste lurraldeetako protestetan ere.

Bazterrak lasaitzeko asmoz, ekainaren 18an plazaratu zuen Konstituzio Kontseiluak oharra, zehaztuz ebazpenak bakarrik eskola publikoentzat zuela balio; baina, hortik gutxira berriz ere ohar bidez gezurtatu zuen zehaztapena... Gauzak ez dira argi, baina argi dena da murgiltzea konstituzioaren kontrakotzat jotzen duen epaia hor dagoela. Hori horrela, Frantziako Konstituzioa aldatzeko eskaerak hartu du lekua. Horren lekuko ekainaren 15ean 140 diputatuk Emmanuel Macron presidenteari bidalitako gutuna: “Konstituzioaren berrikuspenak bakarrik dakar gure eskualdeetako hizkuntzen sustapena, babesa eta transmisioa behin betiko ziurtatzeko aukera”.

Auzia ez da bukatua, eta ikusiz bi aldeak direla determinaturik, luze joko du sokatirak. ●



Arazoa konstituzionala denez, konstituzioa aldatu beharko da

Eneritz Zabaleta, zuzenbidean doktore

Tokiko hizkuntzetan bideraturiko murgiltze eredia eskola publiko eta pribatuetan eskaintzeko eskubide historikoa ezeztatu zuen Frantziako Konstituzio Kontseiluak maiatzaren 21ean, garaipen hau zekarren Molac Legearen bozketatik 44 egunetara. Ebazpen horrek dakarrena xeheki azaldu digu Eneritz Zabaletak, nola ez, murgiltze eredia bermatu eta garatu ahal izateko bideetan arreta jarritz.

 JENOFA BERRHOKOIRIGOIN

Murgiltze eredia tokiko hizkuntzetan eskaintzea Konstituzioaren kontra doala ebatzi zuen maiatzean Konstituzio Kontseiluak. Harritu zintuen epaiak?

Egia da beti ukan duen ildo segitu zuela, baina hala ere gogorra iruditzen zitzaidan. Harridura pixka bat eragin zidan, iraganean baino gogorragoa zelako. Jada 2001ean murgiltzeari buruzko epai bat atera zuen, zeinetan nolabait bereizten zituen eskola publikoak –hauentzat kontraktasuna senditzen– eta ikastola eta diwanen gisako hitzarmen bidezko eskolak –hauentzat baimentzen zuen–. Pentsatzen nuen aldi honetan ere horretan geldituko zela, ez zituela zalantzan emanen kontratu peko eskolak. Azkenean bai eta biziki gogorra iduritzen zait.

Alta, hortik egun batzuetara, Konstituzio Kontseiluak berak ohar bidez jakinarazi zuen bakarrik eskola publikoentzat balioko zuela epaiak. Ebazpena ala oharra, zeinek du balore juridikoa?

Erabakiak du balio. Konstituzio Kontseiluaren baitan kalapitak edo eztabaidak egon direla agertzen da, zeren ohar hori plazaratu eta egun batzuetara berriro aldatu zuten oharra, gibelera eginez, zerbitzu publikoa bere osotasunean kontuan hartzen zela erranez –ez bakarrik eskola publikoak–. Geroztik jakin dugu kontseilari batzuk ez zutela bortsaz gaia ezagutzen, eta beste batzuek baliatu zutela aukera lekuko hizkuntzetan bideratu murgiltzearen kontra joateko.

Ebazpenak ondorioak ukan ditzake kontratu peko eskolen diruztatze publikoan?

Funtzionamendu gastuak estaltzeko herriko etxeek diru bat banatu behar dute eta horrek balio du ere herriko umea ondoko herriko eskolara baldin badoa. Praktikan, betebeharrak hau ez da betetzen. Zer gertatuko da? Kontratu horiek mantentzen diren heinean ordaindu beharko dute, legeak hori dioelako. Baina galdera da: Zer gertatuko da kontratu horiekin? Ez ote du ministerioak

noizbait galdeginen kontratuekin segitu ahal izateko murgiltze eredia aldatzea? Ziurgabetasunean gara.

Murgiltze eredia eskola publikoan eskaini ahal izateko esperimentazio eskubidea erabili izan da. Mekanismo horren bukaera ere dakar Konstituzio Kontseiluaren epaiak?

Esperimentazio mekanismoa plantan eman ahal izateko baldintza bat jarri zuten: legearen kontra joatea esperimentatu daiteke (mekanismo berri bat esperimentatu, ondotik ikusteko ea lege bidez orokortzen den mekanismoa), baina ezin daiteke Konstituzioaren kontra doan zer-bait esperimentatu. Orain arte murgiltzea esperimentatzen ahal zen, ez zelako argi eta garbi erraten Konstituzioaren kontra zioala. Baina orain badugu epai argi hau dioena Konstituzioaren 2. artikulua kontrako doala eta eskola publikoetan ezin dela eredu hori aplikatu. Hor dago zalantza eta dagoen borrokan landutako bidea da erratea eskola publikoan esperimentatzen dena ez dela Konstituzio Kontseiluak definituriko murgiltze eredia. Dena

dela, berriro ere ziurgabetasun handia bada: zer jarrera hartuko ote du errektoreak esperientazio horiekin? Eskola sartze hau normalki iraganen dela erran dute, baina gerora begira galdera ikur handi bat bada. Zer gertatuko da etorkizunean? Errektoretzak zer erabakiko du?

“Lekuko hizkuntzei dagokionez, nekez ikusten dut juridikoki Frantzia kondenatzeko bidea Europatik”

Azkenean, iraganean garatu bideak moztu ditzakete.

Bai. Gainera Konstituzioko 62. artikulua dio Konstituzio Kontseiluaren epaiak derrigorrez aplikatu behar dituztela autoritate publikoek. Horrek erran nahi du gauzak lehen bezala segitzen badira epai hori ez dutela betetzen eta momentu bat etorriko dela zeinetan erranen zaien epaia aplikatzea. Gaur egun diren eredu guztiak dira zalantzan ematen eta hor dago arriskua.

140 parlamentarik Konstituzioa aldatzea eskatu zuten ekainean. Teknikoki nola aldatzen da Konstituzioa?

Iniziatiba hau badugu bai eta horrez gain, uztailean bi parlamentarik ateratako txostena ere hor dugu. Azken honetan ere agertzen da Konstituzioa aldatu ezean ez dela aukera handirik. Macronen legegintzaldi honetan ez da eginen, hauteskundeak laster direlako. Egitekotan 2022tik aitzina eginen litzateke. Badi-ra bi bide Konstituzioa aldatzeko. Bata, erreferendum bidez bukatzen dena, hau da, parlamentariak Legebiltzarrean eta Senatuan testu bera bozkatu ondoren erreferendum bidez berrestea –ez dut uste ikusiko dugunik egun batez hori–. Bestea da bide presidentziala, hor ere testu berdina bozkatu behar dute eta ondotik Frantziako lehendakariak erabakitzen du testua bide parlamentariora bideratzea, Kongresua deitu parlamentu berezira, Legebiltzarreko eta Senatuko kide guztiak ganbera berean biltzen dira eta bozketan %60ko gehiengo behar da aldaketa lortzeko.

Uztailaren 21ean Kerlogot eta Euzet parlamentariak gobernuari aurkeztu txostena aipatu duzu. Zein da zure irakurketa?

Niri iduritzen zait oso txosten timidoa dela. Txosten honek alternatibak aurkeztu behar zituen, baina azkenean egin duena da arazo juridikoa berretsi. Hainbat pista planteatzen ditu, baina beti zehaztuz juridikoki arriskutsuak direla. Hori horrela, Konstituzioaren aldaketa da juridikoki egoera konpontzeko bide bakarra, hori gabe beti ziurgabetasunean izango garelako.

Horrentzat nahikeria politikoa behar da eta hau ez dugu sendi.

Parlamentarien txostenean ere hori erraten da, ez dira baitezpada Konsti-

tuzioa aldatzearen alde, ez dira lekuko hizkuntzei buruzko eztabaidaren alde. Aldarria plaza publikoan jarri beharko da, hautagaiek engaiamenduak hartzeko gisan eta ondotik presidente izendatuak promesa betetzeko gisan. Tamalez badakigu promesak ez direla beti betetzen, Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna berrestearen promesa bi aldiz egin izan da eta alta, ez da sekula egin.

Plaza publikoan egon da aldarria. Gero hurbil-ertainean ere horrela segituko duela uste duzu?

Hurrengo borroka hori izango dela uste dut. Ongi antolatu beharko da, Konstituzioa aldatzea galdegiten duen plataforma berezi bat osatu beharko da. Presidentzialak direnean beti egoten da



Eneritz Zabaleta



lekuko hizkuntzei buruzko interpela-
zio lana, baina uste dut lan handiagoa
egin beharko dela aldi honetan: lobby
lana eginez, mobilizatuz eta hautagaien
programetan engaiamendua sarraraziz.
Hori izanen da oraingo borroka.

“Aldarria plaza
publikoan jarri
beharko da, Frantziako
lehendakaritzako
hautagaiek
engaiamenduak
hartzeko gisan”

Europa izan daiteke hizkuntza gutxituen aitortza lortzeko bidea?

Juridikoki erran nezake ezetz. Hizkuntza
politikarena ez da Europar Batasunaren
eskumenetan eta nahiko askatasun han-
dia uzten die estatuei hizkuntzen tra-
taera arautzeko. Beraz hortik juridikoki
ez dut bide handirik ikusten. Estrasbur-
goko Europako Giza Eskubideen Auzi-
tegiaren pista ere aipatu da. Europako
Kontseiluak sortu zuen organo hau bai-
na honek ere askatasun handia uzten die
estatuei hizkuntza eskubideen arloan,
kontsideratzen duelako 1951n adostu-
riko Europako Giza Eskubideen Konben-
tzioak ez dituela hizkuntza eskubideak
bere babespeko hartzen. Beraz nekez

ikusten dut juridikoki Frantzia zigortze-
ko edo kondenatzeko bidea Europatik.

Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna berretsia balitz, honek Konstituzio Kontseiluaren epaia baino balore handiagoa luke?

Kontua da itun hau berresteko Konstitu-
zioa aldatu behar litzatekeela, epaileek
diotelako itun honek sortzen dituela
Konstituzioarekin bateragarriak ez di-
ren eskubide batzuk. Azkenean arazo
beraren aitzinean gara. Arazoa kons-
tituzionala denez Konstituzioa aldatu
beharko da, hori gabe gauden egoera
zalantzatian edo are egoera okerragoan
izanen garelako.

Errektoreak du lekuan leku eskaerei erantzuten. Jarrera jakobinoan dira, ala noiztenka lekuko hizkuntzen aldeko posturak ere ageri dira?

Errektoretza azkenean hierarkiaren
printzipioari lotua da eta Hezkuntza
Ministerioaren manuak aplikatu behar
ditu. Jean-Michel Blanquer Hezkuntza
ministro denetik, jarrera gogorrago ba-
tean daude errektoretzan eta inspek-
zioan. Hala ere, gaia ez bada puri-purian,
agian askatasun eta aukera gehiago dau-
ka errektoreak, baina hor gaia puri-pu-
rian izanki, saiatuko dira hautsi-mautsi
bat lortzen, beti ere ministerioko prin-
tzipioak aplikatuz. Gobernutik eman den
kontsigna da aurtengo eskola sartzea
lehen bezala, hau da, deus hunki gabe
bideratzea. Aurtengoa horrela pasako
da, baina hemendik aitzina egoera zail-
duko da. ●

ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Kanariak Kartzela eta hilobi bihurtuta

Uztailean, azken sei urteetan bezala, Mugak Zabalduz Karabana ekimena martxan jarri zen Europaren migrazio eta muga politikak salatzen. Aurtengo mobilizazioan Euskal Herriko ehun lagunek baino gehiagok parte hartu dugu, Espainiako Estatuko beste hainbat parte-hartzaileekin batera; 350 pertsona denera. Oraingoan, ekintzaileok Kanaria uharteetara abiatu gara, “Kanariak, ez kartzela eta ez hilobi” lelopean.

ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA

Astebetez Kanaria Handian eta Tenerifen Espainiako Estatua-
ren utzikeria eta arrazismo
instituzionala, mugen milita-
rizazioa eta migrazioaren in-
guruko negozioa –GKE handiak barne-
salatu ditugu manifestazio, *performance*,
kontzentrazio eta ekintzen bitartez;
kalean eta hedabideetan. Bitartean, zu-
zenean ezagutu ditugu uharte horietan
harrapaturik sentitzen direnen egoera,
baita haiek laguntzeko antolatu den Ka-
narietako herritarren erantzuna ere.

PASABIDERIK ARRISKUTSUENA

Bestelako migrazio bideen itxiera dela
eta, udazkenetik aurrera Kanaria irletara
iristen ziren migratzaileen kopurua biziki
handitu zen –22.000 pertsona 2020an–.
Afrikatik Europarako migrazio biderik

arriskutsuena dela esan digute. Datu ofi-
zialen arabera 2.000 hildako baino gehia-
go izan dira 2020 urtean eta 3.000 bai-
no gehiago 2021eko lehen seihilekoan.
Sukeina Ndiaye Tenerifeko migratzaile
sarearen presidentearen arabera aldiz,
“askoz gehiago dira itsasoan desagertzen
direnak. Atzean historia oso bat daukaten
pertsonak dira eta jatorrizko herrietan
lur jota geratu diren familiak daude.”

Itsasoz Kanaria uharteetara iritsi au-
rretiko bizipenak errepikakorrek dira:
egunak eta egunak pateran, noraezean,
bidelagunak hiltzen ikusi eta itsasora
bota, hotza, beldurra, gosea. Elena Martí-
nez-Darve Sanzek, pertsona migratzaile-
leenganako elkartasun asanbladako ki-
deak dioenez, “jakin izan dugu Karibera
iritsi izan dela Kanarietara zihoan patera
galdurik”. Baina ohiko albistea da beran-



Abuztuan, gazte bat kanporatua izan ostean, Las Raices harrera kanpamentuko gazte migratzaileak berriz ere mobilizatu dira, haien bizi baldintzak salatzen. Argazkia: Francesco Fusi eta Rachele Renno

du iristen direla salbamendu taldeak.

Mohamed gazte senegaldarrak arris-
kua hartzeko arrazoia azaldu digu: “Se-
negalen arrantzale aritu naiz, 7 urte ni-
tuenetik. Oso diru gutxi irabazten dugu
arrantzaleok, Europako ontzidiak arran-
tza guztia kentzen digu. Ez dugu beste
aterabiderik migratzea baino, soldata
irabazi eta gure lanarekin bizitza duina
lortzeko. Arriskutsua da, baina ez dugu
beste modurik Europako lurretara etor-
tzeko. Itxaropena dugu gure bidaia ja-
rraitzen utziko digutela. Lan egin nahi
dugu gure familia laguntzeko, neska-
mutilek ikas dezaten eta sendagaiak
eduki ditzaten. Hemen gaude, pazientzia
handiz, hilabete luze”.

Vicky, Karabanako kide eta Regula-
rización Ya plataformako kideak dioe-
nez, “ez dago inolako dei-efekturik, hau



kanporatze efektua da, jatorri koloniala duen pobrezia estrukturala”. Sukeina Ndiayek ildo berean egin du salaketa: “Europara arrain bat ekartzea, hori bai dela erraza, ez da behar asilorik, ez nazioarteko babesik. Baina gizakiei, haiei eskubideak urratzen zaizkie”

KANARIA IRLETAN BLOKATUTA

Migratzaileak baimen legalik gabe iristen direnean, asilo eskaera egin ohi dute. Eskaerak denbora ematen die, administrazioak urte bat edo bi behar izaten duelako erantzuteko, eta tarte horretan Estatuan barna mugitzeko eskubidea dute. Hala ere, praktikan eskubide hori ez da bermatzen.

“COVID-aren eta alarma-egoeraren aitzakian, urritik aurrera aireportuan blokeoa zegoen, mutil horiek ezin zuten

penintsulara hegan egin”, azaldu digu Anak, pertsona migratzaileenganako elkartasun asanbladako kideak. Apirilean kasu bati helegitea jarri eta asilo eskaerarekin penintsulara bidaiatzea baimentzen hasi ziren”. Elena Martínezen hitzetan, “turismoarengatik komeni zitzairen Kanariak hustutzen hastea”.

“Kanaria uharteek hego-mugaren patera betetzen dute, irla izanda errazagoa delako migratzaileak kontrolpean edukitzea. Muga militarizatu dute eta inbasioaren diskurtsoaren bitartez justifikatzen dute. Pateran Espainiako Estatuan sartzen diren migratzaileen kopurua inoiz ez da izan %5a baino handiagoa, baina gobernuari foku mediatikoa pertsona horiengan jartzea interesatzen zaio”, hausnartu du Bea Villahizanak, Karabanako kide nafarrak.

HARRERA BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Migratzaileen iritsiera masiboak eta blokeo horrek ekarri zuten migratzaileak Arguineguineko portuan lehenik, pandemiak hutsik utzitako hoteletan gero eta, azkenik, GKE batzuek kudeatzen dituzten makro-kanpamentuetan pilatzea. Espazio horietan –kartzela ohiak, barrakoiak eta karpak– gazte migratzaileek dituzten bizi baldintzak izan dira Karabanaren salaketa ardatz nagusia: masifikazioa, janari txarra eta eskasa, hotza –bai, Kanarietan hotza ere egiten du–, ur berorik eza eta ezagutza eman ez diren kanporaketak. “25 urte bete dira Kanarietan migratzaileen harrera modu inprobisatuan kudeatzen dela. Bada garaia harrera hurbila eta gizalegezkoa egiteko”, esan digu Kanarietako Karabanako kide Marife Navarrok.

Bidaia traumatikoa egin duten gazteek ez dute GKE eta erakundeen aldetik laguntza psikologikorik jasotzen eta osasun sistemarako sarbidea ere ez dute bermatuta. “Hemen mediku bat eta bi erizain daude 3.000 pertsonarentzat. Buru osasunaren zaintza penagarria da. Itzultzaileak, gizarte langileak, informazioa, laguntza legala... falta dira. Langileek eta poliziek gaizki tratatzen dituzte, arrazismo instituzionala dago eta horrek ondorioak ditu”, dio Raquel, pertsona migratzaileenganako elkartasun asanbladako beste kide batek, mikrofonoa hartuta, Las Raíces kanpamentuaren atarian. Karabanako kideak bertan elkartu gara, salaketa gehien pilatzen dituen gune horretan, kanpamentuan bizi diren hainbat lagunekin eta elkartasun sareko kideekin, haien esperientziak entzuteko. Kanpamentuaren kanpoaldean, hainbat txabola dago, plastiko urdinez estaliriko egitura prekarioak. Orain hemen inork ez du lorik egiten, baina otsailean, gazte askok, baruko baldintzak zirela eta, instituzioen babesari uko egin zion eta kanpoaldean kanpatu zuen.

Autobusez Tenerifeko hegoaldera goaz. Los Cristianos hondartza turistikoan manifestazioa egingo dugu, lehen mailako atzerritarrak –turistak– eta bigarren mailakoak –migratzaile afrikarrak– kontrajartzean sortzen den kontraesana ikusarazteko. Las Raícesen bizi diren gazte batzuk gurekin datoz eta haietako batekin, Mohamedekin, egin dut bidaia. “Janaria oso txarra da eta ez dugu inolako dirurik jasotzen geuk erosi ahal izateko. Kanpamentuko langileek gaizki tratatzen gaituzte. Arrazistak dira. Hemengo bi abokatuak arrazistak dira, ez gaituzte laguntzen. Kanpamentuan ez dugu ezer egiten, jan, lo eta egon, besterik ez”. Elkartasun asanbladako kidea den Ana ere ildo beretik mintzo da: “Ezer ez egite horrek, beren bizitzaren jabe ez izateak, apatia dinamikan murgiltzen ditu gazteetako batzuk eta gero ezin dira hortik atera”. Jakin dugu farmako lasaigarriak ematen dizkietela, ohiko prozedura moduan, eta eraso fisikoak eta sexualak gertatu direla.

Migratzaile ugari dago uharteetan harreraleku ofizialeetatik kanpo, izan kanporatu dutelako edo hala hobetsi dutelako. “Otsailean, hoteletatik kanpamentuetara mugitzen hasi zituztelarik, deportatuak izateko beldurrez edo kanpamentuetako baldintzei buruz entzun-



Afrikatik Kanaria irletara iristeko migratzaileek erabiltzen dituzten paterak. Argazkia: Dabid Ekinklik.

dakoagatik, gazte afrikar askok kalean geratzea erabaki zuen. Astebetean 200 bat izatetik 800 bat izatera iritsi ziren. Eromena zen”, azaldu digu Anak.

Gazte horiek ezin dute kanpalekue-tara itzuli, araudiak hala aginduta, eta Poliziaren jazarpena jasaten dute. “Mutl pilo bat hondartzan ezarri zen. Aste Santua iritsi zenean Polizia kamioi batekin iritsi, hondartzan zirenen gauza guztiak bota eta hurrengo astean itzul zitezkeela esan zien”, dio Anak.

EMAKUMEAK, ADINGABEAK ETA LGTBIQ+ KOLEKTIBOKO PERTSONAK
Kanarietara iristen diren pertsonen gehiengoak gizonezkoa da, baina badira

emakumezkoak ere, askotan hurrekin etortzen direnak. Haientzat Gurutze Gorriak kudeatzen duen egoitza dago, kartzela ohi bat, eta han hilabeteak pasatzen dituzten emakumeek eskubideen urraketak salatzen dituzte. Gizonen modura, blokeo egoeraz eta bizi baldintzez kexu dira, baita laguntza ezaz ere: juridikoa, psikologikoa, osasun aldetik... Mobilizazioen ondoren eta herriaren defendatzailearen bitartez salaketa bideratu zuten arte ez zuten lortu umeak eskolaratzea.

Hurrekin iristen diren emakumeek amatasuna frogatu behar dute eta dokumentazio nahikorik ezean haurrak amengandik bereizi izan dituzte, amata-



Mugak Zabaldur Karabanaren manifestazioak Tenerifeko kaleetan batzuz migrazio politikak salatzen ditu. Argazkiak David Ekinklik



suna ADN frogan bitartez baieztatu arte. Prozesu hori bi eta zortzi hilabete artekoa izan daiteke eta denbora horretan adingabeak estatuaren tutoretzapean geratzen dira, amarekin harremanik izan gabe. Amek prozesua itzultzaile eta abokatuen laguntza eskasaz bizi izan dute, harik eta “herri mugimenduei esker hori aldatzea lortu genuen arte”, dio Sukeina Ndiayek.

Itahisa Calderónek hitz egin du, LGTBQ+ migratzaileekin lanean aritu den abokatuarekin, kolektibo horretako pertsonen kasuez. “Sarritan, pertsona horiek beren kideen partetik sufritzen dute diskriminazioa eta beren sexu-joeira adierazteko beldur dira. Jardunek abokatuek asilo eskaeraren inguruko azalpenak ematen dituztenean, taldean egiten dute eta pertsona horiek normalean ez dute besteen aurrean adierazi nahi asiloa sexu-joeira arrazoiengatik eskatu nahi dutela”.

Sexu-joearengatik edo identitateagatik asiloa eskatzeko, izaera frogatu behar dute, eta hori oso zaila da. Polizia-etxean asilo eskatzaileei egiten zaien elkarrizketan eskaera justifikatu behar dute. “Oso kontu intimoak jende askori azaldu behar dizkiete eta beraientzat oso bortitza da. Gainera, itzultzailearengan konfiantzarik ez badute, ez dute

egoera azaltzen, edo batzuetan itzultzaileek ez dute ongi itzultzen, edo beren iritzia ematen dute”. Komisariako itzultzaileak ez dira profesionalak, bi hizkuntzak ezagutzen dituen edonor izan daiteke. Azpikontrataturak zerbitzua da.

Adingabeek ere, amek edo LGTBQ+ pertsonak bezala, beren izaera frogatu behar dute. Agiririk ezean, auzitegi-mediku analisi baten bitartez administrazioak adina ezartzen die. “Froga horrek errore-tartea du eta ez dira gutxi helduentzako prozesuetan sartu dituzten adin txikikoak, haien zaurgarritasuna areagotuz”, azaldu digu Elena Martínezek.

KANARIAR HERRIAREN LAGUNTZA SAREAK

Migratzaileak harrera zentroetan edo kalean egoera larrian ikusirik, kanariar herriak babes eta laguntza sareak sortu ditu. Kanaria Handian, Somos Red sare 600 pertsona inguru biltzera iritsi zen. Gainezka egin duen harrera sistemak ez ditu bermatzen migratzaileek esku-bideak ezagutu eta erabiltzea. Irletako biztanleak “GKE horien eta instituzioen kudeaketa txarrak eragindako arazoak konpontzen” aritu dira.

Lantaldetan antolatutako janaria eta arropa lortu, kontu burokratikoetan la-

gundu edo ordezkio harrera tokiak birlatzen dituzte, sarritan beren etxeetan. Anak adibide bat azaldu digu: “Martxo hasieran 67 mutil kalean geratu ziren, ez dago garbi Gurutze Gorriak Canarias 50 zentrotik bota zituen ala beren kabuz atera ziren. Hortik aurrera, Poliziaren jazarpena jasan zuten gazte horiek eta horietako hogeitaz deportatu egin zituzten. Haien zatik mendialdean babesleku bat aurkitu genuen eta han ezkutatu ziren bi hilabetez”.

Gaztelera klaseak antolatu, erroldatzeko helbideak bilatu eta aireportura laguntzen dituzte. “Aireportura bakarrik badoaz, askotan ez dira hegazkinera igo-tzen. Airelineak Poliziari deitu eta bi le-erro egiten dituzte, zurieta eta beltzeta. Jendaurrean iraintzen dituzte”, azaldu digu Elena Martínezek.

Elkartasun sare hauek eragile politiko ere badira. Harrera sistemaren gabeziak eta migratzaileek jasandako gehiegikeriak salatzeaz gain, jarrera arrazistei aurre egiteko diskurtso politikoa garatu eta zabaldutako dute.

Une honetan, larrialdi egoera baretu delarik, sare hauen jardura gutxitu egin da, baina udazkenean itsasoz iritsiera masiboa berriro gertatu daitekeela eta, ez dute aurreikusten instituzioen erantzuna ezberdina, hobe, izango denik. ●

Eskolako liburutegia ere ez dago eredu sexistetatik salbu

Ikas-prozesuan eta munduarekiko eraikitzen dugun begiradan ipuinak zein inportanteak diren aintzat hartuta, ikastetxeetako liburutegiei ematen al diegu duten garrantzia? Ba al dakigu zer dugun bertako apaletan eta zer gomendatu ikasle bati eta besteari? Zehazki, genero ikuspegitik aztertu ditu eskolako liburutegiak Parean elkarteak: ipuinetan erreproduzitzen diren joera eta estereotipo batzuk espero zituzten, beste hainbat datuk txarrerako harritu ditu, eta hirugarren ondorio bat atera dute: liburutegiak ez ditugu behar bezain ongi zainduta.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  SHU OTERO

Haur eta Lehen Hezkuntzako (2-12 urte inguruko ikasleak) Irungo Eguzkitza ikastetxea aukeratu dute ikerketa egiteko. 21 ikasgelako eskola publiko honetan, liburutegiak dituen 4.000 liburuetatik 973 aztertu dituzte, genero-ikuspegia abiapuntu hartuta. Ikerketaz gain, ipuinen gomen-dio sorta ere osatu du Parean elkarteak, irudimena eta jakin-mina pizten duten hezkuntzarako altxor preziatua baitira ipuinak. Elkarrearen ustez, ateratako ondorioak badira beste eskoletan aurki daitekeen errealtatearen ispilu, baina oharra ere egin dute: “Hezkidetza plan indartsua du Eguzkitzak, ez da edozer gauza sartzen liburutegian, eta horregatik susmoa dugu hainbat ikastetxetan panorama ziurrenik okerragoa dela”.

Aztertutako ipuinen idazleak gizonak dira nagusiki, mutil protagonistak gehiago dira neskak baino, istorioek sarri estereotipo sexistak erreproduzitzen dituzte... Aurreikusten zuten halako ondorioak ikerketaren egileek, eta hala ere, datu batzuek harritu egin dituztela aitortu digu Oihana Llorente Arretxea Pareaneko kideak: esaterako, emakumeak lan munduan nola irudikatzen

(ez) diren ikusteak. Aztertutako ipuinen %13an baino ez dira ageri emakumeak zaintzan ez den bestelako rol batean, eta lan egiten agertu direnean, gehien-tsuenetan irakasle edo dendar lanetan

*Neskak protagonista
diren ipuin askotan, talde
gisa dira protagonista.
Geronimo da Geronimo
Stilton bildumako
protagonista, baina Tea
Stilton bilduman, Tearen
kluba da protagonista*

baino ez. Alegia, emakumeak ez dira lan-gile gisa islatzen eta agertzen direnean, oso profesio feminizatuetan ari dira. “Ez dira ikusten emakume abokatu edo

alkateak –kexu da Llorente–. Askotan diogu neskak astronauta izan daitezkeela eta halako erreferenteak jarri behar direla mahai gainean, baina oso urrun gaude horretatik; pentsa, gure alabek ez dute ikusten emakumeak lan munduan gaudenik ere!”.

Eta zein roletan ikusten ditugu emakumeak? Bada, zaintzaile. Zaintzak gutxitan du protagonismoa ipuinetan, baina agertzen delarik, emakumeen ar-dura da –ipuinen %95ean emakumeak dira zaintza lanetan ari direnak–. “Asko eta asko dira ipuinetan ama edo amona paperean soil-soilik ikusten ditugun emakumeak”.

EMAKUME LANGILEAK EZ, SORGINAK BAI

Lan munduan apenas, baina hori bai, asko dira sorgin paperean irudikatzen diren emakumeak, hain juxtu aurreiritzi jakin batzuk islatzeko: “Itsusi eta zatar izateaz gainera, gaizkiaren eredu izan ohi dira –dio ikerketak–. Sorgina etiketa erabili izan da feminitatearen arauekin apurtzen duten emakumeak estigmatizatzeko, eta tamalez, haur eta gazte literaturan ikusten dugu oraindik



2-12 urteko hurrei zuzendutako 973 liburu aztertu dituzte, eskolako liburutegietako ipuin eta liburuetan genero ikuspegia zein den ikusteko. Irudian, ateratako datuetako batzuk.

ere indarrean dagoen estigma dela". Sorginei buruzko ipuinek duten tiradiazoa aprobetxatu beharko litzatekeela uste dute Pareaneko kideek, sorginen inguruko bestelako irudi bat eskaintzeko.

PROTAGONISMO PARTEKATUAK, EREDU ESTEREOTIPATUAK ETA MAITASUN ERROMANTIKOA

Ondorio ugari utzi du ikerketak. Ipuineko protagonisten inguruan, adibidez, adierazgarriak dira emaitzak:

gehienetan mutila edo gizona da protagonista (ipuinak %62an), eta protagonismoa bikote batek edo taldeak partekatzen duenean ere, iniziatiba daramatenak eta ekintzaileagoak direnak mutilak izan ohi dira. Eta datu oso esanguratsua: neskak protagonista diren ipuin askotan, talde gisa dira protagonista, alegia taldean partekatzen dute protagonismoa, mutil protagonis- tekin gertatzen ez dena. Adibiderako, Geronimo da Geronimo Stilton bilduma ezaguneko protagonista, baina Tea

Stilton bilduman, Tearen kluba da protagonista, talde osoa.

Arlo ezberdinetan gizakiek egin duten ekarpen historiko eta soziala biltzen duten liburu didaktikoetan ere, askoz urriagoa da emakumeen presentzia. Haurrak historiara hurbiltzeko *Gabai* komiki-bilduman adibidez, gizonen protagonismoa da nagusi, eta *Vascos con Historia* bildumako hamai- ka aleetan, bakarrik jasotzen du emakume baten historia: Maria de Maeztu- rena.



Aztertuturiko ipuinen bi herenak gizonek idatzia dira eta pertsonaiek maiz estereotipoak islatzen dituzte –“neskato txukun, garbi, antolatua; mutil alproja, desordenatu, zikinak”–, baita ilustrazioetan ere –“koloreetatik hasi eta janzeraraino”–.

Maitasun erromantikoak atal berezia merezi duela dio ikerketak: neskatoei zuzenduta egon ohi diren istorio hauek maitasunaren irudi idealizatuan eta printzesa salbatuko duen printzearen klixean sakontzen dute, etorkizunean “harreman sano eta orekatuak izatea oztopatuz”. Azken finean, bikote harreman toxikoak normalizatzeari eta indarkeria matxistari mesede egiten diote halako kontakizunek.

LIBURU INSTRUMENTALAK NAHI DITUGU ALA LITERATURA?

Liburuetan, familia tradizionala da jaun eta jabe (liburuen %95etan), eta bestelako familia ereduak agertzen badira, gaia espresuki jorratzen duten liburuak dira (*Mila bi etxeetan bizi da*). Berdin zuri mendebaldarra ez den arraza eta kultura duten pertsonaiekin: aniztasuna lantzeko liburuetan baino ez dute lekua. Gai zehatzak lantzea helburu duten ipuinak ugaritu direla kontatu digu Oihana Llorentek, eta aurrerapausoa dela, garrantzitsua baita ikasgelan gaia landu nahi denerako tresna hauek eskura izatea, “baina aldi berean, literaturaren ikuspegitik maiz ez dira bereziki erakargarriak, eta horregatik halako ipuinez gain, gai horiek transbertsalago jasotzen

“ ”

Gai zehatzak lantzea helburu duten ipuinak interesgarriak dira, baina literaturaren ikuspegitik maiz ez dira bereziki erakargarriak, eta gai horiek transbertsalago jasotzen dituzten ipuinak ere inportanteak dira

Oihana Llorente

dituzten ipuinak ere inportanteak dira”. Aberastasun hori guztia ezagutu eta ongi katalogatzean dago giltza: “Familia eredu anitzak landu nahi badituzu, ez jo bakarrik ipuin instrumentalera, *Ametsek bi ama ditu* horretara, aholkatu baita ere istorioak zerikusirik ez duen arren gaiak nolabaiteko presentzia duen ipuina (bi ama dituen familia agertzen delako momenturen batean, adibidez)”.

NOR ARDURATZEN DA LIBURUTEGIAZ?

Aipaturiko aberastasun hori guztia ongi ordenatu eta katalogatzeko, apaletan duguna gaurkotu eta interesgarri de-

ritzoguna liburutegira ekartzeko, aukeratzeko eta aholkatzen jakiteko... merezi duen garrantzia eman behar zaio liburutegiari, baina ez ditugula behar bezainbeste zaintzen ondorioztatu du Parean elkarteak. “Hezkuntza Saila bera da liburutegien aldeko apusturik egiten ez duena: lehen, eskola guztietan zegoen liburutegi arduraduna eta leku batzuetan jardunaldi osoko lanaldia izaten zen, baina hori poliki-poliki desagertzen joan da. Kasu honetan, Eguzkitzan, liburutegi arduraduna jangelako arduraduna ere bada, beraz atera kontuak zenbat denbora eskaini diezaiokeen liburutegiari”, dio Llorentek. Horrez gain, nabarmendu du liburutegia txukun mantentzeko ikas-komunitate osoaren inplikazioa behar dela.

Gaiak berak guraso eta hezitzaileen inplikazioa eskatzen du, beraien rola ezinbestekoa baita ikasleek irakurriko duten horretan –bai aukeraketan, baina baita aukeratutakoak zein ikuspegi ematen dituen eztabaidatzeko orduan ere–. Ikerketako galderei erantzunez, irakasleek diote liburuak hautatzeko irizpide nagusia, portzentaje oso handi batean, ikasleen interesa dela (gaiaren, curriculumaren eta abarren gainetik), eta liburuak hautatzerakoan irakasle gehienek ez dute protagonistaren generoa aintzat hartzen.

Hezitzaileen formazioan indarra egin behar dela azpimarratu du Llorentek: “Iaz bukatu genuen ikerketa, eta aurren, ateratako ondorioekin, formakuntza bideratu dugu Irungo eskola publiko



"Lehen, eskola guztietan zegoen liburutegi arduraduna eta leku batzuetan jardunaldi osoko lanaldia izaten zen, baina hori poliki-poliki desagertzen joan da", kontatu digu Oihana Llorentek.

guztietako irakasleekin. Sarritan esaten da betaurreko moreak jantzi behar ditugula, baina horretarako formazioa behar da, eta horregatik, ikerketatik ateratako ondorioei tiraka hainbat irizpide eman dizkiegu irakasleei, ipuinak aukeratzean kontuan izan ditzaten. Gure maleta bete liburu ibili gara ikastetxez ikastetxe; aurrena, eskolan dituzten liburuak aztertzen ditugu ikuspegi kritiko batetik eta gero gure maletako ipuin eta liburuak erakusten dizkiegu".

MOMO, TXIMELETA-BELARRIAK, DANIELA PIRATA, TANGO

Maleta horretan zer duten irudika deza-kegu, Katakarak liburu-denda eta editorialaren laguntzaz osatu duten ipuin bildumari erreparatzen badiogu. Asko dira Parean elkartean gida ederrean aholkatu dituzten ipuinak: *Munstro arrosa*, *Nik ere nahiko nuke mango bat*, *Artu-*

“ ”

*Sarritan diogu neskak
astronauta izan
daitezkeela, halako
erreferenteak jarri behar
direla mahai gainean,
baina oso urrun gaude;
pentsa, gure alabek ez dute
ikusten emakumeak lan
munduan gaudenik ere!*

Oihana Llorente

ro eta Klementina, Tximeleta-belarriak, Munduko karramarrorik ertainena, Printzesek ere puzker egiten dute, Gerrak ez du etenik, Hankaz gora du amak mundua, Daniela pirata, Leotolde, Pippi itsasorako asmotan, Momo, Gu gara marimatrakak, Marie Curie, Martin...

Bat aukeratzeko esan diogu Llorenteri eta *Tango* aipatu digu, umerik izan ezin duten eta umea nahi duten bi pinguinoren istorio zoragarria, New Yorkeko zoon benetan gertatua.

Eta azken ohar bat ere egin digu: hizkuntza askotan daude lan polit askoak; ikerketak izan nahi du baita ere aldarrikapen bat euskarara itzultzeko inguruan dugun on hori guztia. "Nire alabak, adibidez, oso gustura irakurtzen du gaztelaniaz *Good Night Stories for Rebel Girls* bilduma, emakume esanguratsuen biografiak modu bikainean kontatzen dituen". ●



943 64 17 10
www.endanea.com

**Lurrak
ematen duena**

Gozatu baratzeak ematen dituen produktuez eta presta zaitez barazki berriak landatzeko.

Online denda 



UNAI PAROT

Zigorra zigorraren gainean

Datorren irailaren 18an Elkartasun Eguna egingo da Arrasaten, herriko preso eta erbesteratu politikoak gogoan hartuz, haien eskubideen alde urtero egiten den ekitaldia. Hogeitaka preso eta erbesteratu izan dituen herriak preso bakarra du gaur egun, Unai Parot, eta bi herritar herrira itzuli ezinik: Eugenio Barrutiabengoa *Arbe* Venezuelan eta Joxe Manuel Pagoaga, *Peixoto*, Ipar Euskal Herrian. Aurten aldarrikapen berezia dute egun honetarako: Espainiako salbuespen legedien amaiera.

 XABIER LETONA

Eskaera ez da txantxetakoa, ETaren aurkako gerran Espainiako Erresumak lege-sare berezia eraiki zuelako arazo politikoari erantzun errepresibo-juridikoa emateko: esate batera, 1980ko hamarkadako ZEN plana (Zona Especial Norte, Iparreko Eremu Berezia), 1995eko Zigor Kodearen erreforma, espetxe zigorre buruzko 7/2003 Legea edota Espainiako Auzitegi Gorenaren 197/2006ko doktrina, *Parot doktrina* moduan ere ezagutu dena.

Lege hauek, edo legeen aplikazioak, modu zuzenean eragin izan diote jadanik 31 urte espetxean daraman Unai Paroti (Aljer, 1958): bai espetxealdian, bai zigorra betetzeko moduan eta bai auzi berrien bizkarreratzean ere. Seguruenik, preso zigortuenekoa izan da Parot, eta egoera hori salatzeaz gain, egoera normal batean 2005etik libre beharko lukeela ere argudiatzen dute Elkartasun Eguna antolatzen dutenak. Edozein kasutan, espetxe aldia ez zen 2021etik harago joango.

Parot Aljerian jaio zen, baina familia gazte joan zen Ipar Euskal Herrira eta

gazteria Altxürükün egin zuen. Arrasaten ere familia zuen eta horregatik bertako presotzat hartu izan dute han ere.

Mobilizazioaren deialdiaren berri Arrasaten eman zuten uztailaren 19an: irailaren 18an 31 kilometroko ibilaldia egingo dute -Parotek espetxean daraman denbora-, kilometroz-kilometro lekukoa eskuz aldatuz. Abuztuan zehar estatuko hedabide ugari gogor jo zuten ekitaldiaren aurka eta, besteren artean, Guardia Zibilarren Jucil sindikatuak mobilizazioa debekatzea eskatu zien Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Fiskaltzari, Arrasaten "terrorismoa goraipa daitekeelako, biktimen duintasunari eraso eginez". Sare elkarteak ere ekitaldiaren antolatzaile da eta argitu duenez, "mobilizazioak Unai Parot presoari, beste hainbat euskal presori moduan, ezarritako 7/2003 legea salatzea du helburu".

PRESO BEREZIKI ZIGORTUA

Unai Parot ez da edozein preso, ez biktimen elkarreentzat ezta estatuarentzat ere. ETaren *Argala Komando*-ko kidea izan zen eta komando hari egotzi zitzaiz-

kion dozenaka hildako eta zauritu eragin izana. Parot 1990ean atxilotu zuten Sevillan eta, 26 epai tartean, 4.797 urteko espetxe-zigorra jaso zuen. 1978 eta 1990 artean 82 hilketetan parte hartzea leporatu zioten. 1987an Zaragozako Guardia Zibilarren kuartelaren aurka egindako atentatua zegoen horien artean, non hainbat pertsona hil zituzten: hiru guardia zibil, eta gainerakoak hauen senideak, tartean bost haur eta 17 urteko gazte bat. Poliziaren aurreko deklarazioa zazpi eguneko atxiloaldian torturapean egin zuela salatu zuen Parotek.

Hura Sevillan atxilotu eta bi egunera atzeman zituzten Lapurdin Jon Kepa Parot anaia, Frederic Haranburu eta Jakes Esnal komandokideak, eta 1997ko auzi oso berezian bizitza osorako zigortu zituzten. Ion Kepa Parot eta Esnal espetxean dira oraino, Lannemezanen, eta Haranburu baldintzapeko askatasunean utzi zuten iaz.

Horren guztiaren ondorioz, Parot modu berezian zigortu dute. Bere abokatu Haizea Zuloagak jakinarazi digunez, beti izan dute espetxeko lehen gra-

Parotek 31 urte bete zituen espetxean iragan apirilean eta irailaren 18an halako egoerak bideratzen dituzten salbuespen legedien amaiera eskatuko dute Arrasaten.



duan –gainerako ETako preso gehienak bezala–, presorik arriskutsuenentzat aurreikusitako erregimenean. Bizimolde honek 20 ordu ziegan bakarrik egotea dakar eta lau orduko patioa. Bi fase ditu lehenengo graduak, bera beti mantendu dute lehen fasean, eta honetan, jatordu guztiak ziegan bakarrik egiten dira. Herrerera de la Mancha, Puerto I, Alcalá-Meco, Valdemoro, Murcia, Almería, Córdoba eta Puerto IIIko (Cádiz) espetxeetan izan dute, azken honetan hamaika urtez. Iragan apirilean Leongo Mansillako espetxera hurbildu zuten eta bigarren graduan jarri. Preso askoren testigantzetan irakurri edo entzun izan da espetxean bereziki tematu direla Parotekin, isolamendua, jipoiak edo beste hainbat moldez.

ESTATUA ZIGOR BERRIEN BILA

Ia 5.000 urteko espetxe zigorra bizkarretratuta ere, Parotek 30 urte bete beharko zituen gehienez 1973ko Zigor Kodearen arabera, zigortu zutenean indarrean zegoena. 30 urte... ken espetxealdian zi-

gor onurak medio lortutako hobariak. Hauen bidez, jarrera onagatik, ikasketak egin edo beste hamaika arrazoiengatik, presoak espetxe egunak murriztea lortzen zuten, eta batzuek erdiesten zuten 30 urteko zigorrari, bost, sei, zazpi edota hamar urte murriztea.

Urteak aurrera egin ahala estatuari jasan ezina egin zitzaion zigorraren kontaketa molde hori eta 1995ean Zigor Kodea aldatu zuen, gehienezko espetxe urteak 30etik 40ra igoz, eta zigorra murrizteko onurak ezabatuz. 40 urteak osorik bete beharko zituzten hori baino zigor handiagoa zuten presoek, finean, ia bizitza osorako espetxe zigorra, Espainiako justiziak hura debekatzen duen arren. Hori 1995etik aurrera epaitutakoak, lehenago zigortutakoek 1973ko araukin bete behar baitzuten zigorra. Bere legedia izanik ere, estatuak nekez onar zezakeen egoera, are gehiago 2000. hamarkadako lehen urteetan, Lizarrar Garaziko prozesuaren porrotaren ondoren, gatazka biziki gogortu zenean. Eta topatu zuen modua.

197/2006KO DOKTRINA

Lehenik, 2003an legedian hainbat aldaketak egin ziren, besteak beste Espetxe Zaintza Auzitegi Nazionalen zentralizatzea. Denbora laburrean ETako preso ezagun batzuk kalera atera behar ziren eta estatuko egitura juridikoetan hori saihesteko zirrikituak bilatzen ari ziren. 2006an Espainiako Auzitegi Nazionalak untxia atera zuen Unai Parotek kasuan eta, epai bidez, erabaki zuen ETako kide gisa bere ibilbidea bi bloketan zatitu zitekeela, eta beraz, bere espetxe zigorra ere bai, 30 urteko bi bloketan bereiziz eta, hortaz, lehen 30 urteak bukatu ondoren, 30 urteko bigarren zigorra betetzen hasi beharko zela.

Parotek defentsak helegitea jarri zion eta Espainiako Auzitegi Gorenak, 197/2006 epaia medio, arrazoiak eman zion, Auzitegi Nazionalaren ikuspegia zuzenduz, baina aldi berean, kapelutik beste untxi bat ateraz: aurrerantzean, luditze edo erredentzioen bidez lortutako espetxe egunen murrizketek lehen epaiari bakarrik eragingo zioten eta,

orduan, lehen zigorra amaitu ondoren, bigarrena betetzen hasiko zen presoak. Horregatik epai hau *Parot doktrina* moduan ere ezagutzen da, berak jarritako helegite bati erantzun ziolako. Bere familiak hainbatetan adierazi duen gisan, dena den, presoak ez du batere gustuko horrela deitzea, eta izendapenak ekarri dio arazorik hainbat preso sozialekin, ez jakintasuna medio eta sarritan espetxe funtzionarioek xaxatuta, hauek berari leporatzen baitiote epaia.

Neurriak esan nahi zuen, aurrerantzean, luditzeak ez zutela inongo baliorik izango hainbat epai bidez urte askotako zigorra zuten presoentzat. 1994an ere aztertu zuen gaia Auzitegi Gorenak, eta erabaki zuen epai guztietako zigorrak 30 urteko espetxealdian batuko zirela, eta luditzeak horren gainean egingo zirela. Hau da, berdin zen 32 urteko zigorra izatea edo 3.000 urtekoa, luditzeak 30 urteko zigorrari aplikatuko zitzaizkion. Hamabi urte geroago auzitegi berak guztiz kontrako epaia eman zuen.

Ebazpena eskandalu juridikoa izan zen eta hala ulertu zuen baita ere Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak 2012an emandako epaian. Espainiako Gobernuak helegitea jarri zion ebazpenari, baina 2013an, Estrasburgoko Auzitegiak behin betikoz berretsi zuen epaia, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 5. eta 7. artikulua urratzen zituela ebatziz: askatasunerako eta segurtasun juridikorako eskubideak. Ondorioz, 70en bat preso atera ziren kalera, horietako asko jadanik 30 urteko zigorra osorik edo ia osorik beteta.

PAROT, DE JUANA, TROITIÑO, APEZTEGIA...

Parotekin tematzearena ez zen hor amaitu eta bere abokatu Zuloagak dioenez, "etsaiaren zigor zuzenbidea bete-betean ezarri diote, argi eta garbi". Zigorren irakurketa berrikustea, aurki kalera atera zitezkeen preso ezagunen aurkako tresnetako bat izan da, baina baziren gehiago ere. Iñaki de Juanaren kasua ere oso ospetsua izan zen bere garaian, kalera ateratzear zen 30 urteko zigorra beteta eta Auzitegi Nazionalak *Egin* egunkarira bidalitako bi gutunengatik hamabi urteko zigorra ezarri zion 2006an, hartan epaileak, espetxe-funtzionarioak eta politikariak mehatxatzen zituelakoan. Jarritako helegiteari erantzunez, 2007an Auzitegi Gorenak hamabi urtetik hirura murriztu zuen zigorra. 2008an atera zen kalera De Juana.



Jadanik bete behar zituen 30 urterik beste 11 gehitu zizkieten 2007ko epaiketan. Oraingo kontaketa arabera, 2029an aterako da.

Anton Troitiño 2011n utzi zuten libre, eta ikusita bere aurka eratzen ari zen kanpainak ekar zezakeena, Londrese-rahies egin zuen. Auzitegi Nazionalak berriz ere ETAn ekitea leporatu zion, "Errefuxiatuen Kolektiboaren azpi-aparatuan" sartu izana, hain zuzen. Berak beti ukatu zuen akusazioa. 2017an estraditatu zuten Londresetik eta 2018an sei urteko zigorra ezarri zioten. Aurtengo urtarrian jarri dute baldintzapeko askatasunean, minbizi sendaezina duela diagnostikatu ondoren.

"Aita askoz hobeto ikusten dut orain, Mansillan, berarekin telefonoz hitz egitean nabari zaio"

Oihana Parot

Parot, De Juana eta Troitiñoren gisako kasua da baita ere Karlos Apeztegia iruindarrarena. 2013an libre geratu zen 22 urteko espetxealdia bete ondoren eta 2018an atxilotu zuten osteraren egun, espetxean zegoenean ETAn zuzendaritzari gutunak bidali zizkiolako, atentatuerrako balizko helburuak jakinaraziz. Lau

urteko espetxe zigorra betetzen ari da egun.

30 + 11 : 41

Parot 2006ko otsailean inputatu zuen beste auzi batekin egun Barne ministro den Fernando Grande-Marlaskak. 2007an zigortu zuen Auzitegi Nazionalak, preso zegoela berriz ETAn sartu zela argudiatuta, epaiak zioenez, 2001ean bidalitako gutun batean ETAn zuzendaritzari atentatuak egiteko eskatzen zizkiolako, hauek nolakoak izan behar zuten irizpideak ere emanez. Defentsak argudiatu zuen, etakide gisa zigortutakoak etakide izaten jarraitzen duela Espainiako justiziarantz eta kartzelan egonik ez dela posible bi aldiz delitu beragatik auzipetzea eta zigortzea. Aurreko lerroetako kasuek erakusten duten gisan, ez da izan behar sekulako jurista ohartzeko estatuak zein gogo zuen hainbat preso bereziki zigortzeko, aldi berean zigor bide gogorragoak irekiz; estatuko jurista askok ere hala interpretatu zituzten auzi hauek, bereziki 197/2006ko doktrina.

OKIN IKASKETAK EGITEN LEONEN

Hiru alaba ditu Parotek: 36 urteko Haizea, 31ko Oihana eta 22ko Izar. Familiatik Oihana, honen 11 urteko alaba eta Izar joaten zaizkio bisitan; hauez gain, hainbat lagun ere bai. Urtetan joan zaion arreba gaixorik da egun. Hazparraren bizi da Oihana eta orain lau ordu behar ditu Mansillara joateko. Berak oroitzen duenez, Almeriako espetxean zegoela joan zen lehenbiziz aita bisitatzerako, "baina lehenago ere joaten nintzen".



Leongo Mansillako espetxera gerturatu zuten apirilean eta 31 urte eta gero 2. gradua eman diote: okin ikasketak egiten ari da.

Aitak oso egoera gogorak pasatu dituela dio Oihanak. “Gogoan dut duela hiru urte preso batek Puerto III n bere buruaz beste egin zuenean [Xabier Rey iruindarra]. Bost minutuko telefono deia zuen eta bera hortaz ari zitzaidan jario betean. Oso denbora gutxi genuen eta nik moztu behar izan nion esateko ama hil zitzaiola. Oso gogorra izan zen”. Aita

askoz hobeto ikusten du orain, “eta nabi zaio berarekin hitz egiten dudanean. Mansillako 7. moduloan jarri dute, modulo mistoan; harrituta dago emakumezkoak-eta ikustearekin. Kirola ere egin dezake eta okin ikasketak egiten ari da. Eguraldia ere asko aldatu zaio, eta horrek ere on egin dio: Puerton beti bero eta Leonen euria ere sarriago ikusten

du”. Covid egoerak, dena den, espetxetako bisitaldiak okertu dituela dio alabak, eta urtebetez ezin izan dutela aita ikusi, “denbora horretan hiru bideo-dei izan ditugu, bakoitza 20 bat minutukoa”.

Zuloaga abokatuak azaldu digunez, 2008ko EBko erabaki markoan oinarrituta, Parotek zigorra Lannemezanen edo Euskal Herrian betetzea eskatu zuen 2016an, beste hainbat presorekin batera. Aratz Gomez eta Arkaitz Saezi, adibidez, onartu egin zieten eskaera, baina Paroti ez. ETA desegin ondoren, 2018an, berriz egin zuten eskaera, berriz ere ukatuz. Zuloagak azpimarratzen duenez, “2018ko egoera politikoak ez du zerikusirik 2003koarekin, horregatik eskatzen dugu 2003koa moduko salbuespen legeak bertan behera uztea. Justizia errestitatiboa indarrean jartzea aldarrikatzen dugu, erreparazioan, ez-errepikapenean eta guztien mina aitortzean oinarrituta”.

2007ko zigorrarekin, Unai Parotek 2031n atera behar zuen espetxetik, baina iragan uztailan onartu berri dizkiote 2006ko otsaila eta 2007 arteko luditzeak eta, irakurketa berriarekin, 2029ko uztailaren 10ean aterako da, ia 40 urteko zigorra beteta. ●



Irailak 23 / 19:30 - Doan oMOrruMU baMAt
 Joxan Artzeri omenaldia egiteko asmoz, 2018ko udazkenean hasi ziren **IbonRG** eta **Enrike Hurtado**, ohiko dituzten lanabesekin lanean. Ibonek Artzeren hainbat olerki abiapuntu hartuta sortutako kantuak Enrikek berak sortutako software esperimentalekin uztartu ziren. Txalaparta interaktiboa, autotxalaparta eta soinua eraldatzeko programa horiek ahotsa, piano eta txalapartaren egurrak bat egiten dute lan honetan.
IbonRG (ahotsa eta pianoa) eta **Enrike Hurtado** (txalaparta)

Urriak 7 / 19:30 - Doan DENDAOSTEKOAK
 Uxue Alberdiren azken lan literarioan oinarritutako literatur bertso-saioa. Uxuek gaiak jarriko dizkie **Onintza Enbeita** eta **Oihana Iguaran** bertsolariei, **Aitor Nova** Saxofonistaren doinuekin lagunduta.

Urriak 29 / 19:30 - Doan MIRANDE
 Jon Miranderen olerkietatik abiatutako musika-egitasmoa. “Frankenstein bat”.
Elena Setien (ahotsa eta teklatuak), **Xabier Erkizia** (elektronika) eta **Grande Days** taldea

Azaroak 11 / 19:30 - Doan ZIENTZIA FIKZIOZKO BERTSO SAIOA
Miren Artetxe, **Eli Pagola** eta **Jone Uria** (bertsolariak), eta **Danele Sarriugarte** eta **Arrate Hidalgo** (gidoilariak)

Abenduak 17 / 19:30 - Doan HABIAK
Anariren “Habiak” diskoan oinarritutako arte erakusketa kolektiboa; **Anarik** disko horretako zenbait kantu joko ditu.

Euskaren Etxea
 Agoitz plaza 1, Bilbo • www.euskararenetxea.eus
 * Ordutegietan aldaketak egon daitezke

Tipografiaren boterea eta boterearen tipografia

Londres, 1931. *The Times* egunkariaren enkarguz, Stanley Morison-ek tipografia bat sortu zuen, zutabe estuetan letra asko sartzea eta, era berean, irakurleek erraz ulertzea ahalbidetuko zuena. Letra mota hura berehala zabaldu zen prentsan, liburuetan eta, gerora, euskarri digitaletan, gaur egun egunkari horrek beste mota bat erabiltzen duen arren.

Times New Roman izena jarri zioten tipografiari. "Times", jakina, egunkariaren izena zelako. "New", berria zelako eta ordura arte prentsan erabili ohi ziren tipografia gotikoak baztertzea eragin zuelako. Eta "Roman", erromatar *quadrata*-ren eragina zuelako edo, beste modu batera, serifaduna zelako. Letra larri horiek serifa izeneko apaingarri modukoak zituzten ertzeetan eta, hala, Enperadoreen arauak herritarrei harrian zizelkatuta emateko erabiltzen zen *quadrata* Inperioaren boterearen adierazgarri izango zen Europa moderno eta garaikideko tipografoentzat. Berez, serifak arrazoi praktikoagatik sortu ziren arren. Antzinaroko idazkera askotan erabiltzen zen teknika hori, testuak harrian zizelkatuta oso zaila zelako letrei amaiera garbia eta zuzena ematea.

Zentzu horretan, Times New Roman ez zen hain berria, XVIII. mendetik Europako herrialde nagusietan serifadun tipografiak nagusi zirelako. Nazionalismoaren loraldiarekin bat, herrialde bakoitzak bere letra mota zeukan. Italian Giambattista



Bodonik (1740-1813) asmatutako letra erabiltzen zen nagusiki, Frantziar Claude Garamond (1490-1561) grabatzaileak XVI. mendean asmatutakoaren aldeko hautua egin zuten, eta Ingalaterran, aldiz, John Baskervillek (1706-1775) asmatutakoa erabiltzen zen. Herrialde bakoitzak aldarrikatzen zuen aukeratutako letra mota bere hizkuntzara hoberen egokitzen zela, baina hiru adibide horiek beste hizkuntzetara ere ondo egokitzen dira, gaur egun alfabeto latinoan erabiltzen duten edozein hizkuntzatan batez ere Bodoni eta Garamond gehien erabiltzen direnen artean baitaude oraindik.

Baina Times New Roman asmatzerako, Londresen beste tipografia bat zabaltzen

ari zen, garbia, *sans serif* edo serifarik gabekoa. Underground zuen izena, Londresko metroko seinaleetan erabiltzen hasi zirelako XIX. mendearen amaieran. Alemanian Bauhaus mugimenduak ere serifarik gabeko letren alde egin zuen, baina Adolf Hitlerrek Bauhaus eskola itxi zuenean, tipografia ere baztertu zuen, eta Fraktur tipografia gotiko zaharraren alde egin. Bigarren Mundu Gerra amaituta, Frakturarenak egin zuen, eta neutraltasunak irabazi zuen. Suitzarrek mundu guztian zabalduko zen serifarik gabeko tipografia unibertsala sortu zuten 1955ean. Baina badaezpada letra zein herrialdetan sortu zen garbi utzi nahi izan zuten izena aukeratzekoan: Helvetica. ●



Tollundeko gizonaren azken otordua

1950ean naturalki momifikatutako gizon baten gorpua aurkitu zuten Tollunden, Jutlandiako penintsulan. Teknologia berriei esker, 2.400 urte inguruko momiaren urdailean topatutako arrastoak aztertu berri dituzte: Tollundeko gizonak hil baino ordu batzuk lehenago garagarrez, astapipe- rrez eta lihoz egindako ahi moduko bat

jan zuen. Animalia gantz arrastoak ere topatu dituzte, ziurrenik arrainarenak, eta horregatik uste dute dieta nahiko nutritiboa zeukala. Elikadura egokia bai, baina osasun eta higie- ne balditza kaxkarrak zirela ere ondorioztatu dute, urdailean tenia arrastoak eta triko- zefalo eta zizare arrautzak ere aurkitu dizkiotelako. ●

ERREDAKZIOAREN BEGIRADA ASTEKARIKO SAILEI



Denboraren makina ez da gelditzen

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hamabost urte daramatza mar-txan eta jarraitzeko indartsu ikusten dute ARGIA. Sailez sail ari dira astekariaren balorazioa egiten, jabetuta aktualitatearen erritmoak eramanda sarri hausnarketa pausatuagoak bigarren maila batean geratzen direla. Atal bakoitza sakon aztertzeke tartea hartzen hasiak dira erredakzioan eta aldaketa batzuk ere iritsi dira horren ondorioz. Azala, Beranduegi edo asteko argazkiaren balorazioak azalduta ditugu lehenago espazio honetan. Gaur 'Denboraren makina'-ren tartea da.

"Freskotasuna" azpimarratu dute. Artikulua bitxikeria batetik abiatzen da, Nagore Irazustabarrenak amua jartzen dio irakurleari eta behin sa-rean harrapatuta, zeharka sartzen dizkizu beste balore batzuk. Izan dai-teke oso historia zahar bat zeharka kontatzen dizuna gaur egungo arazo bat edo balore batzuk.

Balorazioa egiteko hiru irizpide hartu dira kontuan: garaia, tokia eta gaia. Ez dira hamabost urteak aztertu, azken urtebetea ari dira analizatzen sail guztien kasuan. 'Denboraren ma-kina' garaietan orekatuta ibili dela ondorioztatu da. Alegia, aro edo aldi guztiak landu direla nahiko antzera.

"Aurten akaso Erdi Aroa geratu da gutxiexago landuta, baina orokorrean nahiko orekatuta ikusi dugu", azaldu digute erredakzio taldetik. Gaiak ere denetariokoak eskaini zaizkio atal honetan irakurleari.

EUSKAL HERRIKO GAIK: HISTORIA IDATZI GABEAK

Neurtu da, kasu honetan, zenbat artiku-lu diren Euskal Herrian koka-tzen direnak, zenbat nazioartekoak, eta honen barruan ere Europa edo Mendebaldearen ikusgarritasuna eta besteena zenbateraino dagoen orekan. Euskal Herriko gaitan dago aldea. "Ez da erraza izaten gure he-rriari lotutako estilo honetako histo-ria eta bitxikeriak topatzea", azaldu du atalaren koordinatzaileak. He-rri zapaldu baten arazoak. Historia idatzi gabeak. "Hilero elkartzen gara hurrengo lauzpabost asteak anto-latzeko eta helburu bezala jartzen dugu gutxienez hilean behin sartu behar dugula Euskal Herriari lotu-tako gairen bat, horrela bermatzeko gutxieneko bat", jarraitu du.

Arazoak arazo, gustura dago lan-taldea astekariako sail finko honekin eta beste puska baterako makinak martxan jarraituko du. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Uste dut ARGIAk hain garrantzitsua izan den eta den Covidaren gaiaren trataera irekiagoa eta anitzagoa ema(te)n duela, beldurraren pentsamendu bakarretik aldenduz".

Donostiako Igorrek

"Euskarazko aldizkari bakanetarikoa delako, sustatu beharrekoa, eta apaltasun keinua deritzodalako diru puska sinboliko bat eskaintzea".

Lekeitioko Ibaik

"Nire formaziorako eta eguneroko jarraipenerako tresna ezin hobea delako, eta horrelako kazetaritza bultzatzea ezinbestekoa delako Euskal Herriarentzat".

Elkarteko Lurrek

"Eduki oso interesgarriak plazaratzen dituzuelako, mundu mailakoak, eta pertsona desberdinen interesak babesten dituztelako albisteok".

Getxoko Begoñak

"Antzeko beste egitasmoen babeslea izanik, naturala zen ARGIA ere babestea".

Donostiako Juan Marik

TRISTURARI EMAN BROKOLIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Aza jendeak osasuna dakar. Gure osasuna zaintzen dute: azken ikerketa itxaropentsuen arabera, gero eta froga ziur gehiago dago; aliatu onenetakoak ditugu minbizi desberdinei aurrea hartzeko. Antza denez, osagai duten glukosinatoari zor zaio ahalmen hori.

Azatarrak *Brassicaceae* familia zabalekoak dira; 4.000 espezieetik gora biltzen ditu. Besteak beste: aza (*Brassica oleracea* var. *capitata*), aza kizkurra (*Brassica oleracea* var. *sabauda*), errefau-aza (*Brassica oleracea* var. *gongylodes*), azalorea eta romaneskoa (*Brassica oleracea* var. *botrytis*), brokolia (*Brassica oleracea* var. *italica*), aza gorria (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *rubra*), brusela aza (*Brassica oleracea* var. *gemmifera*), zuhain aza edo bazka-aza (*Brassica oleracea* var. *viridis*), kalea (*Brassica oleracea* var. *sabellica*), ziapeak (*Sinapis alba*, *Brassica juncea*, *Brassica nigra*), errukula (*Diplotaxis tenuifolia*), errefaua (*Raphanus sativus*), daikon arbi zuria (*Raphanus sativus* var. *longipinnatus*), ur berroa edo krexua (*Nasturtium officinale*), errefau mina (*Armoracia rusticana*), wasabia (*Eutrema japonicum*) eta abar.

Neguko egun-argi laburrak tristetzen zaitu? Aza jendearekin negua gozatu eta zeure burua zaindu nahi baduzu, azkar ibili, landatzeko azken muturra iritsi da. Gainontzean besteen azetatik jan behar duzu. Tristura kendu nahi duenarentzat, hor dago nonahi eta noiznahi ba-



Tristuraren gaitza duen piperra, piper alaien artean.

nana (*Musa spp.*); dopamina omen du, nerbio sistema zentralaren kitzikatzaila.

Itxuraz tristura gauza zabaldua da. Ez gaitu soilik gu igurzten. Piperrak (*Capsicum annuum*) ere sufritzen du. Gajoa! Piperraren tristura esaten zaio gero eta hedatuagoa den gaitz bati.

Onddo batek goibeltzen du piperra: *Phytophthora capsici*. Genero horretako onddoak lurlean daude, eta era guztietako landareei erasotzen diete. *Capsici* abizeneko horrek piperrak ditu helburu. Lurretik sartuko zaio piper landareari bere hilabete batzuetako bizitzan edozein unetan: mintegian, landatu berri-tan edo fruituz mukuru denean. Sustrai txikietatik edo lur azalean sustraiak eta

enborra elkartzen diren toki horretan-txetik sartzen da. Enborrean orbain beltzak azaldu daitezke, baina sintoma nabarmenena landarea bere osotasunean ihartzea da, tartean horitu ere egin gabe. Onddoaren erasoak eta landarearen itunaldiak bi iturri izan ohi dituzte maizenik: urasetutako lur itoa edo ongarriketa desorekatua. Itoak onddo urzaleen aldeko giroa sortzen du. Ongarriketan hazkundera sustatu baina kimu ahulagoak ekartzen dituen nitrogeno gaindosia badago, landarearen ehun mengel eta samurragoetan onddoa aise txertatuko da. Eta akabo landarea, ez dago zer eginik, ez dago ez tratamenturik. Piperzaleak landarea triste eta burumakur ikusten duenean, ur falta izango duela pentsatu, eta are eta gehiago ureztatzen du, arazoa okertuz. Piper landare tristea ikusiz gero, ipurditik atera eta bertan erre.

Han eta hemen piperraren depresioari aurrea hartzeko saioak egiten ari dira eta brokolia jotzen dute irtenbide egoki. Udaberrian piperra jarri behar den tokian aurreko udazken-neguan brokolia eta neurri apalago batean azalorea edo aza jarrita tristura gutxiago izaten dutela ondorioztatu dute. Itxuraz, onddoa atzeratzen duten gaiak askatuz lurra "biofumigatzen" dute. Piperrak tristuraren aurkako laguna du brokolia.

Brokoliak gure minbizia atzeratu bai, baina hain zabaldua somatzen den tristura? ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Haritza landatuta dugun sailean hiru intxaurrondo ditugu, kaltegarria izan daiteke? 4x4 metroko tartea dago landareen artean.

Nik ez nuke ardura berezirik izango. Intxaurrondoarekin batera haziko dira haritzak eta ohituko dira. Intxaurrondo handiak balira haritz txikiei kalte egingo liekete, baina biak batera hazita arazorik ez dut ikusten.

Bidali zure galdera: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

MASKILU KONTSERBAK

HURBILEKO NEKAZARIEN PRODUKTUAK ERALDATZEKO PROIEKTUA ZEBERION



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2013an Zeberioiko Udalak nekazaritzan jardun nahi zutenentzako lur eskaintza eta kontserbera bat sortzeko proposamena egin zuen, eta lur horretan lanean jarri ziren kideek herriko eta Arratia inguruko beste nekazariekin elkarlanean kontserbera proiektu komuna bultzatu zuten. Gu-nearen zati handiena auzolanean moldatu, autoklabea lortzeko diru-bilketa kanpaina egin, eta Maskilu Kontserbak proiektua jaio zen. “Lehenago Garaioira edo Leintz-Gatzagara joan beharra genuen kontserbak egitera. Orain, berriz, hemen bertan egin ditzakegu, eta inguruko baserritar asko daude proiektuan sartuta”, dio Jon Garcia kideak.

SOBERAKINAK APROBETXATZEKO TRESNA

Elkarte bat sortzea izan zen proiektuko kideek aukeratutako formula. “Baserri-tarrok bazkide moduan erabiltzen dugu gunea, eta bakoitzak bere produktuak eraldatzen ditu”, dio Garciak. Hogei bazkide inguru dira gaur egun, baina egunerokoan kontserbak egiten hamar bat biltzen direla dio. “Erreminta bat da guretzat kontserbera: nekazari bezala, soberan ditugun produktuekin kontserbak egitea da asmoa”. Elkarteko kide askok otzarak egin eta kontsumo talde desberdinetan banatzen dituzte; horregatik, baratzeko garai zailenetan, maiatzaren eta ekainaren bueltan, kontserbak eta marmeladak eskaini ahal izatea garrantzitsua da haientzat. “Edozein barazki edo fruitu eralda dezakegu. Marmeladak, tomateak, pistoa, lekak, zerba, piperminak ozpintan... denetik egiten dugu”.

Elkarteko kide guztiek dute elikagaiak manipulatzeko karneta, eta hainbat ikastaro jaso dituzte kontserberako



tresneria eta makineria nola erabili ikasteko. Bazkideek beren kontserbak egiteaz aparte, kanpokoei ere eskaintzen diete zerbitzua. “Gunea kudeatzen duen jendea arduratzen da normalean kanpokoei kontserbak egiteaz, kanpokoei ezin baitute lan hori egin”, dio. Produktu guztiak erregistro sanitarioarekin ateratzen dira eraldaketa gunetik; hori bai, Maskiluko zigilua elkarteko kideenak soilik daramate.

AGROEKOLOGIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN PARTE

“Gure izateko arrazoia agroekologiaren alde lan egitea da, eta nekazaritzari eta elikadura burujabetzari lotutako beste

mugimenduekin harremana dugu”, dio Garciak. Elkarteko kide guztiak ez dira eredu agroekologikoan ari, baina denek dituzte konpromiso minimo batzuk hartuak. “Arratian nahiko ezagunak gara, eta politikoki garrantzitsua da guretzat balore minimo batzuk argi izatea eta horren alde borrokatzea”, gehitzen du.

EHNE Bizkaia sindikatuarekin, Etxaldeko emakumeekin eta beste hainbat kolektiborekin dute lotura Maskiluko kideek, eta proiektuan interesa duten nekazari berrientzako ere ateak zabalik dituztela azpimarratzen dute. “Hemen zerbait egin nahi duenari edozer erakusteko eta ahal dugun moduan laguntzeko prest gaude”. ●

Donostia Zinemaldiari buruzko oharrak

SALAKETAK, DIKOTOMIA APURTZEKO SAIAKERAK ETA FILM GOMENDIOAK

Gerturatzen ari da 69. aldiz Donostia Zinemaldia. Beste behin ere hiriak alfonbra gorritz mozorrotuko du bere burua, ahalik eta distira handienarekin agertuko da, eta *tote bag* uniformedunak ibiliko dira alde guztietatik. Ea aurten zein kolorekoak diren.

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

Ia aldi berean iritsi zitzaizkigun bi berriak. Batetik, Zilarrezko Maskorrek, hau da, urtero ematen diren aktore eta aktorea onenentzako sariak, eraldatu egin direla. Hemendik aurrera, bi sari eskainiko dira: sexu bereizketarik gabeko interpretazio onenarentzako saria eta taldeko aktorerik onenari saria. Berlinalek irekitako bidetik sartu nahi izan du Zinemaldiak ere, eta “ziurtasunik ez dutela” onartu arren, “gizarte berdinzaleago bat eraikitzen laguntzeko” pausoak eman nahi izan dituztela azaldu dute.

Bestetik, ordea, polemika ugari sortu duen erabakia ere hartu dute: Johnny Depp aktoreari Donostia Saria ematea berretsi dute. Genero-indarkeriagatik salatu zutenetik Hollywoodek berekin zeuzkan hainbat kontratu eten ostean, Zinemaldiak mugimendu feministatik gaitzespena jaso du sariarekin aurrera egitea erabaki izanagatik. Alderdi politikoaren arteko tirabirak ere eragin ditu gertakariak, eta ikusteko dago aurrera begirakoan emango diren pausoak. Aktoreak Hollywooden partetik “boikota” jasaten ari dela salatu du, Europak saritzen duen bitartean. Artearen eta politikaren arteko elkarketak eta bereizteak daude, batez ere, mahai gainean. Baita horien atzeko negozioa ere.

Tripak nahastuta ditugula, Zinemaldiak bere programazioari dagokionez ia informazio guztia eman berri digu. Sail Ofizialean lehiatuko da Iciar Bolláin

Maixabel lana, Maixabel Lasaren bizipenetan oinarritua. 2000. urtean ETako talde batek hil zuen haren senar Juan Mari Jauregi Gipuzkoako gobernadore zibila izandakoa. Filmak erretratatzeko du nola hamaika urteren ostean tiro egin zuen ETako kide ohiak emakumearekin aurrez aurre hitz egitea eskatuko duen.

Euskal Herrian ekoiztitako filmeekin jarraituz, Zabaltegi-Tabakalera sailean Mikel Gurrearen *Heltze* film laburra izango da ikusgai. Veneziako Zinema Jaialdiko Orizzonti sailean parte hartu ostean, Zinemaldiko sail honetan ikusi ahal izango dugu, baita Kimuak katalogoaren baitan ere. Filmak indarkeria politikoko testuinguru batean nork bere mugak gainditzeari buruzko istorio bat kontatzen du. Donostian kokatuta dago, 2000. urtean, euskal gatazka oraindik pil-pilean zegoenean. Haizea Oses, Mikel Arruti eta Oier de Santiago dira protagonistak. Sara (Haizea Oses) 15 urteko eskalatzailea da, eta hurbil ez duen nebari gutun bat idazten dion bitartean, bere bizitzako maila igoerarik gogorrenerako ere prestatuko da.

Kimuak katalogoari dagokionez, zortzi film laburrek osatzen dute aurtengo edizioa, eta urteroko prentsarentzako pasea izango da Zinemaldiaren baitan. Bertan eskainiko dira Mel Arranzen *Azale*tik *azalera*, Aitor Gametxoren *Berak baleki*, Laida Lertxundiren *Inner outer space* (*Barruko kanpoko espazioa*), Iñigo Aranbururen *Resonancias* (*Oihartzunak*),

Iker Maguregiren *Trumoiak*, Aitor Oñederraren *Ur azpian lore*, Lur Olaizolaren *Zerua blu* eta aipatutako Mikel Gurrearen *Heltze*.

Donostiako Elías Querejeta Zine Eskolako filma ere emango dute zinema ikasleentzako Nest sailean. Artur-Pol Camprubik zuzendutako *Podul de Piatră / Pont de Pedra* film laburra da, Aragoi inguruan filmatutako lana. Filmean, Aragoiko Zerrendako herri baten muga markatzen duen farola bat piztu egiten da gauez. Angelica herrian bizi den emakume errumaniarra da, eta lanean ari dela, ukuiluan moxal bat jaiotzen ari dela ikusiko du. Ama-mintzetik askatze-ko animalia txikiaren borrokak, mamu eta mugako izaki izatearen irudiak, hain zeharkatzen du emakumea, non ez baitu irudi horretatik askatzerik lortuko. Adi jarraitzeko lana. Aurreko guztiari gehituko litzaioke Zinemira saila, euskal filmeen erakusleho dena.

Bide batez, gure ekoizpenetatik haratago, beste sailetan ikusi beharreko filmeen inguruan idazteko ere baliatuko dut artikulua. Nest sailean eskainiko da Paloma Orlandini argentinarraren *Ob scena* filma, zeina kontrol soziala sexuaren irudikapenean diskrezioz txertatuta egoteari buruzko hasnarketa den. 80ko hamarkadako Kuban psikiatra batek sexualitateari buruz idatzitako testu akademikoak berreskuratu ditu Orlandinik, eta lotura egiten du horien eta egungo pornografiaren



Tatiana Huezoren 'Noche de Fuego' lanaren fotograma.

artean. Lan ausartak Argentinako BAFICI zine jaialdiko saria jaso zuen, eta hango askapen borroken kutsua dakarkigu.

Horizontes Latinos sailean Tatiana Huezoren *Noche de fuego* (*Suzko gaua*) lanak erakarri gaitu gehien. Bertan, magiaz eta errealismoz nahastutako istorio mikatza aurkituko dugu, aitzitik, gure inguruaz asko mintzo zaiguna. Mexiko mendietan kokaturiko herri bakarti batean, neskatoek mutilen tankerara mozten dute ilea eta lurpean ezkutalekuak dituzte. Anak eta bere bi lagun onek herritik ihes egin duten pertsonen etxeak okupatzen dituzte eta emakumez mozorrotzen dira inork ikusten ez dituean. Magia eta alaitasunezko unibertso zeharkagaitz batean bizi dira; bien bitartean, haien amek esklabo edo mamu bihurtzen dituztenengandik ihes egiteko prestatzen dituzte. Baina, egun batean, nesketako bat ez da ezkutalekura garaiz iritsiko. Ia bi ordu irauten duen filma ikusteko irrikitan gelditzen gara.

Lehen edo bigarren film luzea duten zuzendarientzako New Directors saila izaten da aukeratua. Kasu honetan, Errusiara begira jarri gara, Lena Lanskichen *Nich'ya / Unwanted* (*Nahi gabe-koa*) filmari, hain zuzen ere. Hau dugu filmaren sinoposia: Vikak 14 urte ditu eta Uraletako eskualde errusiarreko hiri txiki batean bizi da, hiriburutik kanpo. Basoan, hezeguneetan hazten diren fruituak bildu eta amari laguntzen dio kaleko merkatu batean fruitu horiek saltzen. Eskolako koreografia-eskolak gustatzen zaizkio. Eta haurtxo bat dauka, baina inork ez luke sekula horren berri izan beharko. Amatasunaren zentraltasun ezak eta harreman ez erromantikoak jakinmina sortu digu zeharo.

Zabaltegi-Tabakalera sailerako jada ezagun den Jean-Gabriel Périoten lana lehiatuko da aurten ere sail horretan. *Retour à Reims / Returning to Reims* (*Reims-era itzulera*) obran, Didier Erbioren izen bereko eleberraren moldaera

librea egiten du Périotek. Artxibo-materialaren bidez Frantziako langileriaren istorio intimo eta politiko bat kontatzen digu zuzendariak, 50eko hamarkadaren hasieratik gaur egunera arte luzatzen dena.

Azkenik, Perlak sailean, *Les intranquilles* (*Egonezina*) filmak begira gauzka gertutik. Bertan, Leïla eta Damienek arteko harreman sentimentala erretratatzen da, nahasmendu bipolarrek harremanaren baitan duen presentziari tokia eginez. Bikote harremanetako espektatiben eta eskaintzen inguruko hausnarke-ta da.

Sailetan barrena egindako errepaso honekin datorrenaren aurrerapena egin nahi izan dugu, hala nola, Sail Ofizialetik haratago doazen bideak proposatu. Euskal zinemari zein zinema komertzialetan ikusten ez diren filmeei tokia egin nahi dienak badu zeregina irailaren 17tik 25era bitarte. Agian, elkartuko gara bertan. Adiorik ez! ●

Etengabe mugimenduan dagoen identitatea

Ibilbide artistikoaren edo atzera begiradakoaren ideiarekin hautsi nahi izan du Ana Laura Aláezek Bilboko Azkuna Zentroa – Alhondiga Bilbaon daukan bakarkako erakusketan. Horretarako, obra historikoak obra berriekin batera aurkeztu ditu, garai eta leku ezberdinen artean oihartzunak sortuz eta erakusketaren irakurketa atenporala ahalbidetuz. Era berean, *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío* (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik) artistaren autoerreturatu gisa funtzionatzen duen proiektua da bere konplexutasun, zalantza eta haustura guztiekin. Etengabeko transformazioan dagoen artista da Aláez, askotan erori eta lurra ukitu duela aitortu badu ere, altxatzen jakin badakien horietakoa.

 JONE ALAITZ URIARTE

Gogoa geneukan Ana Laura Aláezen (Bilbo, 1964) lanak elkarrekin ikusteko eta azken urte isil haue-tako ekoizpen artistikoaren berri izateko. *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío* erakusketa desira hori asetzera dator, artistak azken hiru hamarkadetan egindako obrak elkarrekin erakutsiz. Errealitateak eta fikzioak, objektuak eta haien irudiak, gorputzak eta horien irudikapenak, eta gaua, festak, sexua, bel-durak, kamuflajea, makillajea, larrua, kateak, jantziak... iruditegi hori guztia azaleratzen da lehen geldialdia Madrilgo CA2M arte-zentroan egin duen eta orain Bilbon ikusgai dagoen erakusketan.

Ana Laura Aláez batik bat eskultore gisa da ezaguna, nahiz eta bere ekoizpen artistikoa hain den zabala non instalazioa, argazkigintza, bideo-arte eta azken garaian musikaren esparrua ere landu dituen. Bilboko Arte Ederren fakultatean eskulturako espezialitatea ikasi zuen, eta herentzia horregatik dago hain presente, batez ere bere lehen eskulturetan, estruktura fisiko sendo baten beharra ideiak transmititzeko gailu gisa. Dena den, nahiko goiz hasi zen eskulturari ihesbide berriak asma-

tzen, neurri batean, egoerak hala behar-tuta: 1991n New Yorken finkatu zen eta estudio propioa izateko zailtasunak bultzatuta, bigarren eskuko dendetan eta azoka txikietan aurkitutakoak hartu zituen eskulturak egiteko lehengai gisa. Bertan topatutako kapelu, jantzi eta apaingarriak lehenago erabilitako altzairu, burdin eta xaflak ordezkatzuz joan ziren.

Testuinguru horretan sortu zuen, adibidez, *Mujeres sobre zapatos de plataforma* (Emakumeak plataformadun oinetakoen gainean) obra ikonikoa, Aláezen estiloaren zigilu bilakatu den artelana. Instalazio horretan, kapelutegietan eskuratutako kapelak –lumadunak, lora-dunak, fosforitoak, plastikozkoak– eta auzoko dendetan aurkitutako plataformadun zapatak –txarolezkoak, larruzkoak, gardenak– erabiltzen ditu. Kapelak goian zintzilikatuz eta oinetakoak lur-rean kokatuz, bi elementuen arteko espazio hutsak emakumearen gorputzaren presentzia eza birsortzen du. Kasu honetan, eta Oteizaren arrastoa jarraituz, materialak berak bezainbesteko maila dauka hutsuneak, emakumearen azala jantzi garden gisa. Erakusketan,

obra honen berrikusketa dago ikusgai, kasu honetan dozenaka minigonaz egin-dakoa.

1994. urtekoa da *Auto retrato rosa* (Autoerreturatu arrosa) argazkia. Busto argazki horretan artista bera dugu protagonista, peluka gisa urdaiazpiko xerrak daramatza, eta zuzenean begi-ratzen dio kamerari, goxo eta errugabe. Obra honekin lan-ildo berri bati ekiten dio artistak, zeinak nahiz eta eskultura –edo eskultorikoa– duen abiapuntutzat, argazkian bilakatzen den erreal. Kasu honetan, eskultura aitzakia besterik ez da beste helmuga batzuetara heltzeko. *Negritas* (Beltzaranak), *Firma de autor* (Egilearen sinadura) edo *Kiko* norabide berdintsuan funtzionatzen duten argazkiak dira. Ildo beretik, 1999. urtean bere lehen bideoa grabatu zuen *The Darlings* (Maiteak) tituluarekin, eta bertan ere operazio bera ematen da: bideoaren abiapuntua eskultorikoa bada ere –kasu honetan, artistaren bustoa etengabe biraka peluka eta makillaje ezberdinekin– bideoa da obra argitara eramateko erabiltzen duen bitartekoa.

Aláezek fikzioak sortzen ditu bere gorputzak eta aurpegiak eskaintzen

dioten materialaren inguruan, izan ere, eta berak dioen moduan “neure burua erabiltzen dut nire obretan, inguruan ditudan gauzak erabiltzen ditudalako. Eta nik neure burua daukadanez, lanerako tresna gisa erabiltzen dut. Gero, nire argazkietan islatuta ikusten naizenean, inoiz izan ez dudana familia-albuma dela iruditzen zait”.

She Astronauts proiektuarekin espazioen esku-hartzeen lan ildoari ekiten dio. Kasu horretan, Bartzelonako Sala Montcadari denda baten estetika eman zion eta erakusketa aretoa guztiz eraldatu zuen. Keinu horrekin, arte-espazio hotz eta aseptikoak leku inklusibo bilakatu nahi zituen artistak, publikoa eroso senti zedin eta behin barruan, obra artistikoarekin topaketa gerta zedin saiatzen zen artista. Zentzu berean, Madrilgo Reina Sofia Museoa 2001. urtean *Dance & Disco* proiektua jarri zuen martxan; hilabete eta erdian museoa musika elektronikorako klub bilakatu zuen DJ ezberdinen parte-hartzearekin. Espazioaren diseinua Aláezek berak egin zuen, baita altzariak, argiztapena eta etengabe proiektatzen ziren bideoak ere. Esku-hartze horien eta gehiagoren

dokumentazioa ikusgai dago Bilboko erakusketan. Arte-erlazionalaren mugimenduaren baitan irakurriak izan daitezkeen proiektu horiengatik akaso, 2008. urtean Nicolas Bourriaud-ek sortu zuen Parisko Palais de Tokyoen *Beauty Cabinet Prototype* (Edertasun-kabine-tearen prototipoa) instalazioa egin zuen. Proiektuaren muina arte-zentroan bertan edertasun kabinete bat jartzea zen.

Urte berekoa da *Cabeza Agujero Puño Esperma Nudo* (Burua Zuloa Ukabila Esperma Korapiloa) instalazio eskultorikoa, erakusketan leku nabarmena duen artelana. Hormatik modu basatian ateratzen diren bost gorputz eskultoriko dira, brea bezain beltzak, eta larruzko bost jaka erditik bortizki zeharkatzen dituzte. Larruzko jakak hormatik sortzen diren formen idulkiak dira eta instalazio horren estetikak Mapplethorpen iruditegia dakarkigu burura. Bilboko Arte Ederren Museoa bildumarako berriki erosi du obra hori.

Erakusketaren bukaera aldera, *Butterflies* (Tximeletak) izena daraman bideoa dago. Bideoaren musika erakusketako atmosferan nahasten da eta bisita guztian barrena entzuten da. Doinua ederra

da, itsaskorra eta hauskorra, eta telebistaren parera heltzen zaren arte ez da ulertzen Ana Laura Aláez dela kamerari begira dagoena, modu apal eta lotsati batean amodio abesti bat kantatzen. Zer gertatuko da tripan tximeletarik sentitzen ez dugunean? Zer gertatuko da artea egiteko gogoa joaten zaigunean?

Erakusketarekin denboran kointzidituz, Aláezek *Portadores queer. El doble y la repetición* (Queer eramailleak. Bikoitza eta errepikapena) ikus-entzunezko pieza aurkeztu zuen Bilboko Arte Ederren Museoa, Multiverso bekari esker egingo dako lana. Bere aurretiko bideoak ardatz hartzen dituen lan ausarta egin du artistak, bideoklipen estetika daukana eta musikak oso leku nabarmena duena. Erorketei eta berreskuratzei buruzko bideoa da, bere buruarekiko egiten duen adiskidetze-ariketa zintzoa. Era berean, queer izaera aldarrikatzen duen lana da, eta queer izate hori prozesu artistikoe-tan txertatu beharreko jarrera dela aldarrikatzen du artistak; arraro izate hori goraipatzen du, promiskuitate artistikoa praktikatzea, nortasun artistiko aldakorra izatea, finean. Berak urte luzez egin duen hori egitea, alegia. ●





LIBURUA

Umorea eta geure buruaren ezagutza



ELOY MORENO

MUNDUA ULERTZEKO IPUINAK

EGILEA: ELOY MORENO

ITZULTZAILEA: FERNANDO

REY ESCALERA

ILUSTRAZIOAK: PABLO ZERDA

DENONARTEAN, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Izenburuak iradoki dezake liburu honek helburu praktikoa duela, bertako ipuinek erabilera nagusiki instrumentala (formatzailea) dutela, eta alde horretatik mesfidantza puntu batez barneratu nintzen ipuinon irakurketan.

Hasieratik, baina, sorpresa atsegina izan dudala aitortu behar dut. Egileak –gure artean ezaguna izan daiteke aurretik argitaraturiko *Ikusezin* gazte literatura-ko obragatik– herri ipuinetatik abiatuta, berak “antzinako ipuinak” dio, hauen aldaera berria eta gaurkotua egin du: “Gaur egungo denboretara egokitu nahi izan ditut: egoerak aldatu ditut, pertsonaiak, hizkera... baina mamia, mamia betikoa da: mundua ulertzen laguntzen digun hori”.

38 ipuin laburrek osatzen dute liburu hau –bigarren eta hirugarren liburuak iragarrita daude horren amaieran– eta

nahiko arin irakurtzen diren piezak dira. Gehienetan gertakari bat kontatzen zaigu amaiera ironiko, barregarri edo harrigarri batekin. Eta amaiera horrek, narrazioaren ondorengo amaierak ematen du zer pentsa, gogoeta egitera bultzatzen gaitu gizakion jokabideez.

Hona hemen, adibidez, *Errespetua*, liburuko ipuinik laburrena, kontakizunaren estiloa eta nondik norakoa argi erakusten duena:

“Emakume bat loreak jartzen ari zen bere senarra zenaren hilobian, eta, agurre bat ikusi zuen ondoko hilobian plater bat bete arroz uzten.

Emakumea hurbildu, eta, burlaizez, galdetu zion:


–Egitan uste duzu zure ahaidea zena etorriko dela arroz hori jatera?

–Bai, jakina –erantzun zion agureak–,

zurea lore horiek usaintzera etortzen den egun berean”.

Ipuinak sinpleak dira, irakurtzeko zailtasunik gabeak, eta ez oso luzeak –hiru orrialde gehienez–; alde horretatik oso aproposak dira egileak proposatzen duen bezala egunero pare bat irakurtzeko, baina baita ere arratsalde batean, lasai asko, liburuko kontakizun hauekin irribarre egiteko; gehienetan, horixe delako irakurleari sorrarazten dion lehen inpresioa gogoeta egitera ere bultzatzen duten ipuin hauek.

Beraz, liburu oso gomendagarria da beste bati irakurtzeko –zergatik ez ohera doazen haur txikiagoei?– edo norberak une atsegina igarotzeko; hori bai, ipuinok lagunduko digute mundua ulertzen, baina, batez ere, lagunduko digute une goxoa igarotzen. ●



MUSIKA

Diabolo Kiwiren beroketa funklimatikoa

XALBA RAMIREZ

2021a Ekialdetik etorri dela entzun nion Hedoi Etxarteri. Iruñerriko Chill Mafia, Ben Yart, Ibil Bedi eta Tatxers nahikoa genituzke baiezatzeko. Ekialderago oraindik, Donibane Garaziren bueltan, Habia-ren estreinako lanaz gain, badugu urteko beste disko bat: irailaren 8an kaleratuko duten Diabolo Kiwi-ren *Uhin Galduak* diskotzarra. Guk primizian entzuteko zortea izan dugu.

Sartu koktelera Parcels, Tom Misch, Yussef Dayes, Daft Punk, Ariana Grande eta Funkadelic-en *One nation under a groove* eta agertuko zaizu *Uhin Galduak*-en lagin bat. Osatzeko, baxenabartar umorea eta ironia beharko dituzu –“Bixkotx zaleen kluba” ze ona–, eta amaitzeko, gehitu eszenografia intergalaktikoa, diskoaren estetika hor kokatua baita.

2010eko hamarkadak eman duen baxu-bateria bikote hoberena da Etxeberri anaia, Pelaxekoak gaingitzea zaila bazen ere. Julenek bateriak sendo eramateaz gain, ohikotasunetik ihes egingo du, erritmo zailenetan ere ausardiaz erantzunez. Allanderen baxua berriz, soinu eta groove aldetik paregabea da, hitz askoz gehiago ezin dut esan. Kamaal Williams Dabadabara datorren hurrengoan, musikaririk gabe badator, badu nor fitxatu.

Leire Iribarneren ahotsa, batzuetan apal geratzen bada ere, gai da indarra eta goxotasuna aldi berean emateko. Melodietan ez dugu aurrez ikasitako errazkeriarik, baina ezta ere alferrikako apaingarririk. Neurritasunaren edertasuna da Iribarne diskoan. Zuzenean beste maila bat da...

Eta azkenik Amañur Epher-en gitarak ditugu. Idazle, aktore eta nahi beste arteren artean, funk gitarra garbi bikainak eskaintzen dizkigu, gitarra-jotzaileen protagonismoari uko eginez, kantua zoragarri lagunduz. Instrumentuak isolatuta disko bana atera lezakete.

Zitokinen Ortzantza bideo-singlere harrigarria kaleratu dute. Erritmo konplexua aletzen lagundu digu Allandek, 13/8an baitago, 1-2-3-4, 1-2-3-4, 1-2-3-4-5, baina hala ere ez du galtzen dantzarako bulkada. *Teoriak* kantuak harrapatu nau ni, negazionistei eta konspiranoikoei irri egiten die bidaia kosmikoan: “Arrazoin zinuten / Lurra xabala da / Eta guk ez dugu deus entzun nahi izan / Giza-narrastien erresuman gira / Itsuki bizi aspaldian”.

Laukote indartsuak jolasa du helburu eta euren buruarentzat egindako diskoa dela dirudi. Erronka aise gaingitu dute. Zein erronka? Nu-Jazz deitu zaion lehen



UHIN GALDUAK DIABOLO KIWI

AUTOEKOIZPENA, 2021

euskarazko diskoa egitea, adibidez, edo erritmo konplexuetan hegan igarotzea, entzulearentzat inolako esfortzurik gabe. Rocka, funka eta jazza denak segidan, batetik bestera jauzi eginez, eta gainera dantzatzeko eta gozatzeko prest. Esana dut lehenago, Diabolo Kiwi da Euskal Herriko talderik onena edo izango da. “Betiko iraun dezala / DBKren grooveak bezala”. ●





Musikariak zezen plazan

 MARTA SENDIU ZULAIKA  DOSPORDOS

Abuztuko lur eta kultur lehorteari aurre egiteko iraila euritsu hasi da gurean eta berarekin batera heldu da Belako taldearen dokumental iragarpena. 2020ko pandemia garaian egindako autozinema biran grabatu zuten eta aurtengo Donostia Zinemaldian egingo dute estreinaldia. Mungia-ko laukoteak COVID-19aren pandemia hasi zenetik jakin izan du egokitzen, eta, dokumentalean ikusiko dugun bezala, zuzeneko kontzertuetan ere haien one-na ematen jarraitu dute unean uneko neurriekin bazen ere. Horren erakusgarri da Gasteizko “ez-jaietan” eskainitako kontzertua.

Kultura-industria jasaten ari den amesgaiztoari irtenbide txiki bat emateko proposamena da Kultura Bizia dinamika. Kultura modu seguru eta kontzientean gozatzeko bost hilabetez hainbat ekimen antolatu dute Gasteizko

Iradier Arenan. Besteak beste, ZOO, Iza-ro, The Baboon Show, Ene Kantak, Tremenda Jauria, eta abuztuaren 7an taula gainera igo ziren Belako eta Niña Coyote eta Chico Tornado.

Ia inoiz zezenik egon ez den plazan dago oholtza, erabilera anitzeko eraikina izan behar zuenak ez du ia erabilpenik izan azken urteetan. Pandemia etorri eta kultur eremuk hainbat eragile elkartu behar izan da diru publikoarekin kudeatutako esparruari erabilera emateko. Baldintzek ekitaldietarako egokিতuta behar zuten izan, baina dena nahi izateak azkenean ezer ez izatea ekarri du. Beroa eta soinu eskasa dira kontzertuetan sufritzen diren albo kalte nagusietako batzuk, eta ez dugu ahaztu behar eraikin moderno eta berri bati buruz ari garela.

Niña Coyote eta Chico Tornado eman diote hasiera Zeledonen jaietako

BELAKO

NOIZ: abuztuak 7


NON: Gasteizko Iradier Arenan

egunari. Transmittutako indarra eta elkar ulertzeak berotu du giroa, nahiz eta ikusleriaren ipurdiak ez diren aulkietatik altxatu. Belakori eskainitako azken abestiaren atzetik sartu da agertokira laukote gaztea eta 2020. urtean argitaratutako *Plastic Drama* albumeko punk-rock doinuekin hasi dira, baina laster agertu dira *Hegodun Baleak*, *Hamen* eta *Render me numb* bezalako abesti eza-gunak.

Gaueko iluntasuna sartu da erabilera anitzetarako zuzenduta dagoen plazako kristal gardenetatik. Cris abeslariaren XL alkandora zuriak, *biker* beltzek eta ezpain gorriek gidatu dute gaurko kontzertu berezia. Aurtengo “ez-jaiak” ezberdinak izan dira, baina behintzat iaz izan ez zen eskaintza kulturalaz gozatze-ko aukera txikia izan dugu, ea hurrengo urtean zutik eta beldurrik gabe dantzatzeko aukera dugu. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Atze, atzeko alde. / Ugaztun karraskari, jauzika arin ibiltzen dena. **2.** Ahuntzaren ar. / Funtzio mentalak. **3.** Garbiketarako ontzia. **4. Argazkiko herria (Araba).** **5.** Hegaztiek hegan egiteko dituzten organoetako bakoitza. / Hala bazan edo ez bazan sar dadila ... **6.** Xabier ..., kantaria. / Akuilarazi. **7.** Sendagaia. / Bangiko herritar. **8.** Eliz ordezkariaren batzar. / Gudari talde egituratua.

GOITIK BEHERA:

1. Sodio kloruroa. / Musika nota (alderantziz). **2.** Aldapa. / Esparru. **3.** Hizketan. **4.** Erregetza. **5.** Zoro, ergel. / ... hoc, latinezko lokuzioa. **6.** Apaingarri txiki. / Arrazoi, zergati. **7.** Esnez egindako elikagaia. **8.** Riad-eko herritar. **9.** Berkelioaren ikurra. / Olibondoaren fruitua. **10.** Dozena-erdi (alderantziz). / Berehala (alderantziz). **11.** Bakoitzak bat. **12.** Ondo ulertzen dena. **13.** Erraza ez dena. **14.** Gari sorta. **15.** "Peruren sabel beteak ez dizkit ... betetzen hesteak".

Sudokua

ERRAZA



2					6	1	7	
			3				5	
6				5		8		
	7			9		6		2
		4				5		
5		9		1			3	
		3		4				8
	8				9			
	4	2	7					5

ZAILA

2			6	4				
	7	4	3					5
9					8			
6	1						5	3
7	3						9	4
			8					9
4					6	8	3	
				1	5			7

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Zein materialez

Behiaren ar heldu

Egiaz, benetan

Bat ere ez

Deitore, auhen

Haurra, umea

Irri, burla

Lehengusua

Azeria

Lauz osatua

Uhin

Sojaz egindako jakia

Musika tresna

ZEREZ

FAGOT

EBAZPENAK

ETA BEHIN EBAKI
ALDIZ NEURTU
EGURRA BI
ATSOITZA

3	8	6	9	1	5	4	2	7
4	9	5	2	7	6	8	3	1
1	2	7	8	3	4	5	6	9
7	3	8	5	6	2	1	1	4
5	4	2	1	9	3	7	8	6
6	1	9	4	8	7	2	5	3
9	6	1	7	5	8	3	4	2
8	7	4	3	2	9	6	1	5
2	5	3	6	4	1	9	7	8

ZAILA

1	4	2	7	6	3	8	5	9	5
7	8	6	5	3	9	2	2	4	1
9	5	3	2	4	1	7	6	8	
8	2	4	6	7	3	5	1	9	
3	7	1	4	9	5	6	8	2	
6	9	7	1	5	4	8	2	3	
4	1	8	3	2	7	9	5	6	
2	3	5	9	8	6	1	7	4	

ERRAZA

ESKER-ESKUIN: 1. GIBEL, ERRI, 2. AKER, PSIKE, 3. TERREINA, 4. BERNEDO, 5. HEGO, KALABAZAN, 6. LETE, ZIRIKARAZI, 7. OSAGAIA, BANGIAR, 8. SINODO, BATILIOI, GOITIK BEHERA: 1. GATZ, LOS, 2. IRE, HESI, 3. BERBETAN, 4. ERREGEKO, 5. ERO, AD, 6. PIN, ZIO, 7. ESNEKIA, 8. RIADAR, 9. BK, OLIBA, 10. IES, AKAT, 11. BANA, 12. ARG, 13. ZAIL, 14. AZAO, 15. NIBI.

Maddalen Aristegi Sanchez

TABUAK HAUTSIZ
ASKEAGO BIZI



LORE GORRIA MORETIK

Ametsa egia bilakatzea lortu du Maddalenek. Literalki, gainera. Argentinan zegoela egin zuen amets hura, eta "hau Anerekin partekatu behar dut" esanez iratzarri zen, Ane Narvarte Lasarengan pentsatuz. Telefonoa hartu, ametsa kontatu eta proiektua berarekin egin behar zuela esan zion. Euskal Herrira itzultzearekin batera gauzatu zuten egitasmoa. Hala sortu zen Loregorri. Tailerrak eta teoria eskaintzeaz gain, konpresa bererabilgarriak sortzea erabaki zuten, beren jarduna materializatzeko, gorpuzteko. Harrera ezin hobea izan dute gainera. Gaur egun, Oiartzungo Laboren, Iruñeko Karrikirin, Hernaniko Itzal dendan... aurki daitezke. Sarea hedatzen ari dira.

"Gorputz menstrualak gara eta hori ezin da ezkutatu"

Hilekoa norberaren baitatik bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du Loregorri taldeak. Ariketa kolektiboa izan behar dela argi dute, gainontzean zama oso pisua baita. Minaz edo minetik ez bada, hilerokoaz ez dela hitz egiten diote: "Nork daki nola sentitzen den obulazio fasean?". "Gorputz menstrualak ziklikoki bizi direla libreki adierazi, sentitu eta plazaratu bitartean, ezingo dugu zinez aske bizi". Gogoetara bultzatzen gaituen elkarrizketa eskaini digu taldeko kide Maddalen Aristegi Sanchezek.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Noiz sortu zen Loregorri egitasmoa?

Orain dela urtebete eta zenbait hila-bete eman genuen jarduna publiko egiteko lehen urratsa, baina lehenagotik jada buruan dantzan nuen ideia. Argentinan nengoela izan nuen proiektuaren hazia izan zen ametsa. Euskal Herrian garatu nahi nuen, ordea, eta zorionez hala izaten ari da.

Zer da Loregorri?

Gure iritziz proiektu handia da, hainbat elementu biltzen dituena. Alta, hankak lurrean behar ditugu. Gure hasierako helburua hilerokoaren inguruan edukiak sortzea zen, ez edonola ordea. Guretik eta euskaraz baizik. Jakintza jada badago, gauza asko idatzita daude eta ezagunak dira. Jakintza hori bera guretik, gure esperientzia, bizipen eta gogoetekin batera partekatzea da egin nahi dugun bidea. Hala, gogoeta eta partekatze tailerrak egiten ditugu.

Gure tailerrak, ordea, ez dira azalpen guneak. Izaera ziklikoaren eta hilerokoaren inguruan solastatzeko gune bat sortzen dugu, eta bertan norbera libre da sentitzen duena

adierazteko, kezkek partekatze, galderak pausatzeko, eta, noski, baita jakintza plazaratzeko ere. Gune zaindu eta goxo horretan parte hartzaile oro eroso sentitzea oinarritzakoa da, eta iruditzen zaigu lana horizontalki egiten denean konfiantza aski azkar sortzen dela eta askoz ere emankorragoa dela prozesua.

Egia da hori guztia ideietan gelditzen dela. Teorian, azken batean. Orduan, konpresak egitea erabaki genuen. Lehen konfinamendu hark bete bete harrapatu gintuen azken urrats horretan. Egun gutxi batzuk lehenago, etor zitekeenaz jakitun, hainbat proba egin genituen, telak erosi eta martxan hasi ginen konpresek.

Zein korapilo askatzen dira tailerretan?

Bereziki, gaia bera tabu izatetik plazara ateratzen da. Elkarren artean sortzen dugun espazio publiko horretara. Norberak bere esperientziatik hitz egiten duenean eta entzuna sentitzen denean, gai horren inguruan mintzatzea jendartearen zeinen berezitzat hartua den jakinda, "ma-

"Teoria handiak irakurtzea baino garrantzitsuagoa da norberak bere gorputza ezagutzea, hori da gakoa".



gia" gisakoa sentitzen dugu. Orain arte indibiduala izan dena partekatze hutsagatik kolektiboa bilakatzen da. Zamak arindu egiten dira eta "hilerokoarekin nagoenean nik hau egiten dut" proposatzen du batek, edo "nire gorputzeko atal horrekin adiskidetzeko nik beste hau egiten dut" aipatzen du besteak. Tribu sentsazioarekin ateratzen garela esango nuke. Elkarbanatu eta elkar entzun dugulako.

Hilerokoaz hitz egitean oraindik ere lau topiko erabiltzen dira...

Espazio publikoan bai. Mina, egun "gorri" edo "bereziak", umore txarra... Gainera, topiko horiek ez dira emakumeok sortuak eta esango nuke ez ditugula guk erreproduzitzen. Esan egiten zaizkigu, modu ezkorrean. Mespretxatu egiten da hilerokoa. Hala ere, esango nuke poliki-poliki bada ere hitz egiten hasi garela. Kulero gorriak mahai gainera ateratzea eskas da, hori egia da. Beti arropa zikintzearen beldurrez ibiltzen gara. Galtzak gorritu orduko arropaz aldatzen erakutsi digute. Gorputz menstrualak gara eta hori ezin da ezkutatu. Bada lotsarik gabe azaleratzeko ordua.

Nerabeekin lan egin ahal izan duzue?

Gorputz menstrual helduekin lan egin izan dugu bereziki, baina Oiartzungo Haurtzaro ikastolatik 9 eta 10 urteko ikasleekin aritzeko proposamena egin ziguten. Oso saio politak izan ziren, guretzako ezberdinak, adin horretan normalean oraindik ez baita hilerokorik agertu eta beste esperientzia batetik mintzo baitira. Hasi aurretik hilerokoaz galdetu genien denei, haientzat zer ote den, nola imajinatzen ote duten euren burua hilerokoarekin... Bakoitzak bere izu eta zalantzak ere agerrarazi zituen. Eta hain gazte izanik jada ikusten dira zama handiak. Hilerokoa zikinarekin lotzea adibidez, minarekin, deserosotasunarekin... Jada kutsatuta daude.

Gorputz ez menstrualek ere badute zer egina, ala?

Kasu honetan "errespetatu eta entzun" esango nieke. Eta norberak bere estrategiak bila ditzala bide horretan laguntzeko.

Ohitu al gara konpresa berrerabilgarriak erabiltzera?

Lan honetan hasi ginenean, lantzen du-

gun teoriatik zerbait materiala ateratzea zen konpresen helburua. Oso poliki hasi ginen, oso produkzio txikiarekin. Harritu egin gaitu izan dugun harrerak. 25 urtetik aurrerako jendea izan ohi da animatzen dena. Konpresa eskuz garbitu behar duzu, beraz gorputzarekin duzun harremana aldatu egiten da. Onarpen batekin doa. Zure parte da hilerokoa. Hilerokoa onura eta osasuntsu gaudela da. Natura zaintzetik ere diskurtsoak aldatzen ari dira, poliki bada ere.

Zer esango zenioke konpresa berrerabilgarriak erabiltzeari nazka dion bati?

Gutxika hasteko esango nioke. Erosi aurretik hilerokoarekin modu osasuntsuan harremantzen hastea garrantzitsua da. Ukitu, horren inguruan hitz egin, partekatu. Nazka ematen badizu, onartzen ez duzulako da. Beraz, lehenik eta behin horrekin amaitu behar da. Abiapuntu gisa hartu behar da nazka sentitzera bultzatu gaituztela, kulpasentimendurik gabe alegia. Teoria handiak irakurtzea baino garrantzitsuagoa da norberak bere gorputza ezagutzea, hori da gakoa. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Guggenheimeko garbitzaileei eskaini die kanta berria Gransan Roses raperoak: P.O.P.A.T.I.K.



"Bilbotarron ikurra eta ohorea ahalik eta zikinen uztea helburu duten sindikalista alfer horiei, check this, with love, representando, from The Capital of the world", dio Gransan Roses raperoak abestiaren hasieran. Bizkaiko Diputazioa, Bilboko Udala, Laredoko Turismo bulegoa, Athletic Club, La Otxoa, Petronor, Euskaltel eta Azkuna in memoriam elkarteak sustatutako kanpainari ukitu modernoagoa emateko "P.O.P.A.T.I.K."

abestia enkargatu diote Bilboko Emine-mi. "Lan gutxi egiten dute, eta gehitxo ke-xatu, mundura zabalik den hiri honetan gauza horiek intimitatean egiten dira. Diru gehiago irabazi nahi dutela? Jode, nik ere bai, baina begira noraino heldu naizen, txo!", azaldu digu raperoak. Etor-kizunari begira jarrita dago jada artista, ideiak borborka: *Iberdrola, gogoaren argindarra* eta *Begoñako Ama, hermana yo sí te creo* abestiak labea dituzte.


Tori seme, argindarraren faktura




@THE_RAVEN77 | TWITTER

SAREAN ARRANTZATUA

Lasai ama,
dena ez dago balduta



Laguntza humanitarioa



Qatar Holding,
Iberdrolaren
lehen akzionista



HERROR404 | FACEBOOK

19,5€



Kamiseta berria!

%100 kotoi organikoa

24€



8€

15€



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moya Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45 azoka.argia.eus

 **ARGIA** *Azoka*

LAGUNDU BANAKETA SAREA INDARTZEN

Lan baldintza duinak bermatzen dituzten banaketa kooperatibak sortzen ari dira Euskal Herrian. ARGIA hasieratik sustatzaile da eta gainera, honi esker, aldizkariak harpidedunei bizikletan banatzen hasi gara. Helburua, geroz eta herri gehiagotara zabaltzea.



ZER EGIN DEZAKET?

Aukerarik ikusten baduzu herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko, jarri gurekin harremanetan eta azter dezagun egoera:

KOMUNITATEA@ARGIA.EUS

ARGIAko kide egin
halako proiektuak bultzatzeko:

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA
943 37 15 45